

## **ESTATUTU SOZIALAK**

### **NAFARKOOP ENERGIA S. COOP.**



Estatutu hauek zazpi kapitulutan antolatzen dira, guztira 61 artikulua eta azken xedapen bat hartzen dituelarik

## **I. KAPITULUA**

IZENA, XEDEA, EGOITZ SOZIALA, JARDUERAREN IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA

## **II. KAPITULUA**

BAZKIDEAK

## **III. KAPITULUA**

KOOPERATIBAREN DIZIPLINA-ARAUAK

## **IV. KAPITULUA**

KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

## **V. KAPITULUA**

KOOPERATIBAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

## **VI. KAPITULUA**

KOOPERATIBAREN DOKUMENTAZIOA ETA KONTABILITATEA

## **VII. KAPITULUA**

KOOPERATIBA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

## **AZKEN XEDAPENAK**



## I. KAPITULUA

### IZENA, XEDEA, EGOITZ SOZIALA, JARDUERAREN IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA

#### 1. artikulua Izena

NAFARKOOP ENERGIA S. COOP. izena hartuta, Lekunberrin (31870, Nafarroa) irabazi asmorik gabeko zerbitzu-kooperatiba bat eratu da, Nafarroako kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 FORU Legearen printzipio eta xedapenen mende jarria, bai eta aplikatzekoak zaizkion gainerako lege-aginduei eta estatutu hauei ere.

#### 2. artikulua Xedea.

Sozietatearen xedea energia sortzeko edozein motatako ekoizpen-unitateak –betiere energia-iturri berriztagarrien bitartez– sustatu, bideratu eta kudeatzea da, horrela sortutako energia merkaturatu eta bazkideek kontsumitu dezaten.

#### 3. artikulua Egoitza soziala

Iruñeko (31001) Kale Berriko 111 zenbakian du egoitza, Nafarroako Foru Komunitatean.

Kontseilu Errektoreari dagozkie udalerrri berean egoitza soziala lekuz aldatzeko erabakiak. Batzar Nagusiari dagozkie Nafarroako Foru Komunitate barruan egoitza soziala lekuz aldatzeari buruzko erabakiak.

#### 4. artikulua Jardueraren iraupena eta lurralde-eremua

**Bat.** Iraupen mugagabearekin eratu da sozietatea.

**Bi.** Nafarroako Foru Komunitatean jardungo du, batez ere, kooperatibak.

#### 5. artikulua Hirugarrenetikiko eragiketak

Kooperatibak ondasunak eta zerbitzuak eman ahalko dizkie bazkide ez diren pertsoneri eta erakundeei bere lurralde-eremuan; eragiketa horien emaitzen % 50 Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratu beharko da, eta gainerako % 50 Borondatezko Erreserba Funtsera

## **6. artikulua    Estatutuak aldatzea**

Estatutuak aldatzeko erabakiak Batzar Nagusian bertaratutako zein ordezkaturako botoen bi herenen gehiengoa behar izanen da.

Estatutuak aldatzeko erabaki hori eskritura publikoan jasoko da, eta Kooperatiben Erregistroan inskribatuko.



## II. KAPITULUA

### BAZKIDEAK

#### 7. artikulua Bazkide izan daitezkeenak

##### **Bat. Bazkide erabiltzaileak**

Kooperatiba honen zerbitzuen bazkide erabiltzaile izan daitezke xede sozialean (2. artikulua) deskribatutako enpresa-jardueretako batzuetan diharduten edo horietan parte hartzen duten pertsona fisiko eta/edo juridikoak, edozein modalitatetan, baldin eta estatutu sozial hauetan jasotako betebeharrak eta eskubideak onartzen badituzte, eta leialtasunez, eraginkortasunez eta efikaziaz betetzeko konpromisoa hartzen badute.

##### **Bi. Bazkide langileak**

1. Bazkide langile izan daitezke jarduteko gaitasuna izanik, kooperatiban lan egin dezaketenak, baldin eta estatutu hauek onartzerakoan –eta dagozkien eskubide eta betebeharrak jakitun izanda–, lan hori leialtasunez, eraginkortasunez eta efikaziaz betetzeko konpromisoa hartzen dutenak.

Bazkide langile izaera galtzeak, kooperatiban lan egiteari utzi beharra eragingo du.

Bazkide langileak iraupen mugagabekoak izanen dira; hala ere, horren arabera legeen barruan, aldi baterako lotura soziala izan ahalko dute kooperatibarekin.

##### **Hiru. Bazkide laguntzaileak**

Bazkide laguntzaile izan daitezke izaera pertsona fisiko edo juridikoak, kooperatibaren helburu soziala bete-betean aurrera eramaterik ez izan arren helburu soziala lortzen lagundu badezakete eta gainerako bazkideekiko interes komuna egiaztatzen badute.

#### 8. artikulua Bazkideak onartzeko baldintzak

**Bat.** Bazkide erabiltzaile izateko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Hemezortzi urtetik gorakoa izatea edo nortasun juridiko aski edukitzea.
- b) Kapital sozialaren ekarpenetarako hartzen diren konpromisoak onartzea, bai eta bazkide mota honentzako ezartzen den hasierako nahitaezko ekarpena egitea, horren zenbatekoa estatutu hauetan ezarri delarik, edo Batzar Nagusian onartu eta indarrean dagoelarik.
- c) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion parte-hartze konpromisoa onartzea.

- d) Kooperatibaren organo sozialetan egoki erabakitako akordioak onartzea eta betetzea, bai eta orobat indarrean dagoen kooperatiben alorreko legeria, estatutu sozial hauek eta Barne-araudia ere.
- e) Bazkide izateko eskaera egitea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako idazki bidez

**Bi.** Bazkide langile izateko baldintza hauek bete behar dira:

**A.** Iraupen mugagabeko bazkide langilea izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Hemezortzi urtetik gorakoa izatea.
- b) Lan-jardunerako kontratatzeko gaitasuna izatea.
- c) Kapital sozialaren ekarpenetarako hartzen diren konpromisoak onartzea, bai eta bazkide mota honentzako ezartzen den hasierako nahitaezko ekarpena egitea, horren zenbatekoa estatutu hauetan ezarri delarik, edo Batzar Nagusian onartu eta indarrean dagoelarik.
- d) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion parte-hartze konpromisoa onartzea.
- e) Kooperatibaren organo sozialetan egoki erabakitako akordioak onartzea eta betetzea, bai eta orobat indarrean dagoen kooperatiben alorreko legeria, estatutu sozial hauek eta Barne-araudia ere.
- f) Eskainitako lanpostua betetzeko behar den titulazioa edo prestakuntza profesionala izatea, eta probaldia -zeinaren iraupena, gehienez ere, sei hilabetekoa izanen den-gainditu duela egiaztatzeko zuzendaritzaren txostena eskuratzea.
- g) Probaldiak irauun bitartean:
  - 1. Kooperatibak eta izangaiak harremana eten ahalko dute alde bakarreko erabaki librea hartuta.
  - 2. Ezin izanen da sozietatearen organoetako karguetarako aukeratua izan.
  - 3. Ez da behartuta egongo ekarpena egitera, ez eta sarrera-kuota ordaintzera ere.
  - 4. Probaldian direla, ez zaie egotziko kooperatibaren galerarik, eta ez dute kooperatiba-itzulkinak jasotzeko eskubiderik izanen, nahiz eta bai irabazietatik kobratzeko eskubidea, soldatapekoei onartzen zaienaren kopuru berean.
  - 5. Bazkide izateko eskaera egin ahalko du, Kontseilu Errektoreari zuzendutako idazki bidez.

**B.** Iraupen mugatuko bazkide langilea izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Hemezortzi urtetik gorakoa izatea.
- b) Lan-jardunerako kontratatzeko gaitasuna izatea.
- c) Kapital sozialaren ekarpenetarako hartzen diren konpromisoak onartzea, bai eta bazkide mota honentzako ezartzen den hasierako nahitaezko ekarpena egitea, horren zenbatekoa estatutu hauetan ezarri delarik, edo Batzar Nagusian onartu eta indarrean dagoelarik.
- d) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion parte-hartze konpromisoa onartzea.
- e) Kooperatibaren organo sozialetan egoki erabakitako akordioak onartzea eta betetzea, bai eta orobat indarrean dagoen kooperatiben alorreko legeria, estatutu sozial hauek eta Barne-araudi ere.
- f) Eskainitako lanpostua betetzeko behar den titulazioa edo prestakuntza profesionala izatea, eta zuzendaritzaren aldeko txostena eskuratzea.
- g) Sozietate-kontratu bat izenpetzea, non beharrezko xedapen guztiak jasotzeaz gain, berariaz adieraziko den kooperatibarekiko sozietate-harremana aldi baterakoa dela.
- h) Bazkide izateko eskaera egitea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako idazki bidez.

Iraupen jakineko bazkideen kopuruak ezin izanen du inola ere epe-mugarik gabeko bazkideen bostena gainditu; horien botoen guztikoak ere ezin izanen du aipaturiko muga gainditu.

**Hiru.** Bazkide laguntzaile izateko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Hemezortzi urtetik gorakoa izatea edo nortasun juridiko aski edukitzea.
- b) Kapital sozialaren ekarpenetarako hartzen diren konpromisoak onartzea, bai eta bazkide mota honentzako ezartzen den hasierako nahitaezko ekarpena egitea, horren zenbatekoa estatutu hauetan ezarri delarik, edo Batzar Nagusian onartu eta indarrean dagoelarik.
- c) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion parte-hartze konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren organo sozialetan egoki erabakitako akordioak onartzea eta betetzea, bai eta orobat indarrean dagoen kooperatiben alorreko legeria, estatutu sozial hauek eta Barne-araudia ere.

e) Bazkide izateko eskaera egitea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako idazki bidez.

## 9. artikulua Onartzeari buruzko erabakiak

**Bat.** Kontseilu Errektoreari dagozkie bazkideak onartzeari buruzko erabakiak oro.

**Bi.** Bazkideak onartzeari buruzko erabakiak mugatu ahal izanen dira, soil-soilik, bidezko arrazoi hauengatik:

- a) Kooperatibaren zerbitzu emateko ahalmena.
- b) Bazkide berrien beharizan objektiboak, Kooperatibaren antolaketa eta funtzionamendurako ezinbestekoak.

Bazkideak onartu edo ez onartzeko ezin izanen da xede sozialarekiko arrazoi arbitrario edo bidegabekoa den diskriminaziorik baliatu. Ezin izanen da inoren onarpena ukatu ideia politiko, sindikal edo erlijiosoei loturiko arrazoiengatik, ez eta arraza, hizkuntza, sexua edo egoera zibilari buruzkoengatik ere.

## 10. artikulua Bazkideak onartzeko prozedura

**Bat.** Bazkide izateko eskaera idatziz eginen zaio Kontseilu Errektoreari, eta hark hartuko du erabakia, eskabidea aurkezten denetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

**Bi.** Epe hori amaitutakoan ebazpenik adierazi ez badu, bazkidea onartu dela ulertuko da.

## 11. artikulua Onarpenari buruzko ebazpenen aurka egitea

**Bat.** Erabakia ukatzekoa bada, eskatzaileak helegitea jar diezaioke Batzar Nagusiaren aurrean, behar bezala egindako jakinarazpena jaso eta 20 egun balioduneko epean. Batzar Nagusiak ebatziko du, helegitea jaso ondoren egiten den lehen bileran, interesdunari entzunaldia egin ondoren, ezkutuko bozketaz.

**Bi.** Erabakia onartzekoa bada, horri ere helegitea aurkeztu dakioko Batzar Nagusiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta 20 egun balioduneko epe berean, hala eskatu badu gutxienez bazkideen % 10ek.

Batzar Nagusiak ebatziko du auzia, helegitea jaso ondoren egiten den lehen bileran, interesdunari entzunaldia egin ondoren, ezkutuko bozketaz.



## 12. artikulua Eskubide eta betebehar sozialen hasiera

**Bat.** Eskubide eta betebehar sozialek eragina izanen dute onarpen-erabakia hartu zen egunetik beretik.

Erabakiari helegiterik jarri izan bazaio, eten egingen da Batzar Nagusiak zer egin ebatzi bitartean.

## 13. artikulua Bazkideen betebeharrak

Betebehar hauek dituzte bazkideek:

- a) Batzar Nagusiaren eta deitzen dieten gainerako organoen bileretara joatekoa.
- b) Karguak onartzekoa, horretarako aukeratzen badituzte, ez onartzeko bidezko arrazoiak dituztenean izan ezik.
- c) Kooperatibaren xede diren ekintzetan esku hartzekoa. Ondorioetarako, gutxieneko parte-hartze modulu edo arauak zehaztuko dira Kooperatibako bazkide mota bakoitzarentzat:
  - Bazkide erabiltzaileentzat: Kooperatibak merkaturatu, kudeatu eta ematen dituen produktu eta zerbitzuak eskuratzea, Ohiko Batzar Nagusian finkatuko den urteko gutxieneko zenbatekoan gutxienez, Kooperatibak produktuak eskuratzegatik edo emandako zerbitzuak baliatzegatik igortzen ahal dizkien ordainagiriak garaiz eta atzerapenik gabe ordaintzea, unean-unean finkatzen diren aldian aldiko ekarpen eta kuotak ordaintzea.
  - Bazkide langileentzat: Kooperatibaren esanetara egotea, laguntzeko eta xede soziala garatu eta hobetzeko bidean agindu edo eskatuko dizkieten zereginetan aritzeko.
  - Bazkide laguntzaileentzat: Kooperatibaren esanetara egotea, laguntzeko eta xede soziala garatu eta hobetzeko bidean agindu edo eskatuko dizkieten zereginetan aritzeko.
- d) Kooperatibaren xedeekin lehian dauden ekintzetan ez aritzekoa, ezta horrelakoetan aritzen direnekin lankidetzan ere, non eta Kontseilu Errektoreak ez duen berariaz horretarako baimena ematen.
- e) Kooperatibaren jarduerak isilpean gordetzekoa, horiek jakinarazteak Kooperatibaren xedeak kaltetu ditzakeenean, bai eta jarduera horiekin lotutako datu, informazioa eta ezagutzak oro ere.

- f) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenak ezarritako baldintzetan egitea eta aldian aldiko kuotak ordaintzea, ezarritako epeen barruan.
- g) Galerak finantzatzea, Batzar Nagusiak erabakitako zenbatekoan. Betebehar hau V. kapituluan (Kooperatibaren araubide ekonomikoa) garatzen da.
- h) Bazkide erabiltzaileak aktiboki inplikatu beharko dira eta/edo deitzen zaizkien bileretara joan beharko dute, Kooperatibaren instalazio eta zerbitzuen erabilera eraginkorra eta efikaza izan dadin.
- i) Lege- eta estatutu-arauen ondoriozko gainerako eginbideak betetzea, bai eta Kooperatibaren erabaki-organoei behar bezala onartutako erabakietatik eratorritakoak ere.

#### **14. artikulua Bazkideen eskubideak**

**Bat.** Eskubide hauek dituzte bazkideek:

- a) Kooperatibaren organoetako karguetarako aukeratzekoa eta aukeratua izatekoa.
- a) Batzar Nagusian eta kide diren gainerako organoetan proposamenak egitekoa eta hartzen diren erabaki guztietan parte hartzekoa, hitza eta botoa dutelarik.
- b) Kooperatibako jardueretan parte hartzekoa, inolako bazterkeriarik gabe.
- c) Beren eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar duten informazio jasotzekoa, betiere estatutu sozial hauetako hurrengo artikuluan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.
- d) Sozietate kooperatiboaren araubidetik sortzen diren ordain ekonomikoak jasotzekoa, ekarpenak gaurkotzeari eta itzultzeari, eta ekarpen horien korritu mugatuari -halakorik balego-, bai eta baja emanez gero itzulkinak eta likidazioa jasotzekoa ere.
- e) Bazkide erabiltzaileen kasuan, aldian-aldian kooperatibak banaka zein modu globalean ematen dizkien zerbitzuen bilakaerari buruzko informazioa jasotzekoa.
- f) Kooperatibaren organo sozialek hartutako baliozko erabakiak betearaztekoa.
- g) Kooperatibak eskaintzen dituen onura, zerbitzu eta abantaila ekonomiko eta sozialetatik etekina ateratzekoa.
- h) Legeetatik eta estatutuetatik eratortzen diren gainerakoak.

**Bi.** Nolanahi ere, bazkideek lege- eta estatutu-arauak, nahiz Kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak betez baliatuko dituzte beren eskubideak.

Kontseilu Errektoreak ekarpenak itzultzeko eskaerari erantzun beharko dio, eskatzaileak bazkide izaera galdu baino lehen.

Onartuz gero, itzulketa zein egunetan egingen den adierazi beharko du.

## **15. artikulua Informazioa jasotzeko eskubidea**

**Bat.** Bazkideek informazioa jasotzeko eskubidea baliatu ahal izanen dute legean, estatutuetan edo Batzar Nagusiaren erabakietan aurreikusitako moduan, zeinetan egoki iritzitako bideak jarri ahal izanen baitira bazkideen eskubide hori bideratu eta gauzatzeko.

**Bi.** Eskubide hauek dituzte bazkide guztiek:

- a) Kooperatibaren estatutuen eta, halakorik balego, Barne Araudiaren kopia eskatzekoa.
- b) Kooperatibako bazkideen erregistro-liburua eta batzar orokorraren akta-liburua aztertzekoa, eta Batzar Nagusiaren aktaren eta han hartutako erabakien kopia zertifikatuak eta bazkide-erregistroko liburuan egindako inskripzioen ziurtagiria eskuratzekoa, betiere aurretik eskaera arrazoitua eginez gero.
- c) Kontseilu Errektoreak hartutako erabakien kopia zertifikatua eskatzekoa, baldin eta erabakiok bazkideari eragiten badiote.
- d) Kooperatibak duen ekonomia-egoeraren berri jasotzekoa. Informazio hori Kontseilu Errektoreak eman beharko diote, eskatu eta hilabete igaro baino lehen.

**Hiru.** Bazkide orok argibide edo txostenak eskatu ahal izanen dizkio Kontseilu Errektoreari, idatziz, Kooperatibaren funtzionamenduaren edo emaitzen berri izateko.

**Lau.** Gai-zerrendaren arabera ekitaldiko kontuez edo proposamen ekonomiko bati buruz eztabaidatu behar den Batzar Nagusiaren bileran, bazkideek ahoz eskatu ditzakete eztabaidagai horien berri ematen duten azalpenak, zeinak deialdiak dirauen bitartean egoitza sozialean egon behar baitute, bazkideek aztertu ahal ditzaten.

Epe horretan zehar, bazkideek eskubidea izanen dute egoitza sozialean Kontseilu Errektorearen txostena aztertzeko, bai eta, hala badagokio, kontuen kanpoko kontu-ikuskatzailearen txostena.

Epe horretan zehar, bazkideek agiri ekonomiko horiei buruzko azalpenak eta argibideak eskatu ahal izanen dituzte, idatziz, eta Batzar Nagusiaren bilera izan baino bost egun lehenago gutxienez, eta bileran bertan erantzun daitezten.

**Bost.** Aurreko atalean ezarritako eskubidea eragotzi gabe, Kooperatibaren boto guztien gutxienez % 10 ordezkatzan duten bazkideek noiznahi eskatu ahalko dute, idatziz, beharrezko iruditzen zaien informazio oro. Kontseilu Errektoreak idatziz eman beharko du eskatu zaien informazioa, gehienez ere hogeita hamar eguneko epean.

**Sei.** Edonola ere, gutxienez urtean bitan, eta egokiena iruditzen zaien bidetik, Kooperatibaren aldagai sozioekonomikoen berri eman beharko die Kontseilu Errektoreak bazkideei edo haiek ordezkatzan dituzten organoei.

**Zazpi.** Kontseilu Errektoreak uko egin diezaioke informazioa emateari, soil-soilik, eskaera ausarkeria edo oztopagarria bada, edo informazio hori emateak arrisku larrian jar baditzake Kooperatibaren interes legitimoak. Hala ere, ez da halako salbuespenik izanen baldin eta ukatzen den informazioa Batzar Nagusian eman beharrekoa bada eta eskatutako informazio hori ematearen alde azaltzen bada bertaratutako eta ordezkaturako boto guztien erdia baino gehiago, eta gainerako kasuetan, horrela erabakitzen badu Batzar Nagusiak, informazio-eskatzaileek aurkeztaturako helegitearen ondorioz.

Nolanahi ere, eta zortzigarren atalean adierazitako bermeak agortzen badira, ezezkoaren aurka egin dezakete eskatzaileek, abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legearen 26.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Zortzi.** Berme-sistema hauxe ezarri da:

- a) Informazio eskaera orok hura eskatzen duten bazkide behar bezala identifikatuen sinadura eduki behar du, eskaera egiteko zergatien azalpen arrazoituarekin batera.
- b) Kontseilu Errektoreak informazio eskaera ukatzea erabakitzen badu, erabaki horren aurkako helegitea aurkeztu ahalko da Batzar Nagusiaren aurrean, hogeitaz eguneko epean ezezkoa jakinarazi denetik aurrera.

Batzar Nagusiak erabakiko du helegitearen gainean, isilpeko bozketa bidez, hura jaso ondoren egiten duen lehen bileran, interesdunari aurretik entzun ondoren.

## **16. artikulua Bazkideen borondatezko baja**

**Bat.** Bazkide orok nahi duenean utzi ahalko du Kooperatiba bere borondatez; horretarako, aurretik abisatu beharko du Kontseilu Errektorea, idatziz, 3 hilabeteko epean.

**Bi.** Baja ez justifikatutzat hartuko dira aurretik abisatzeko epea ez betetzea eta gutxienezko egonaldian gertatutakoak, salbu eta Kooperatibaren Kontseilu Errektoreak bestelakorik erabakitzen ez badu, kasuaren inguruabarrak aztertu ostean, hargatik eragotzi gabe bazkideari eskatu ahal izatea Kooperatiban nahitaez egin beharreko zituen lan eta zerbitzu guztiak betearaztea eta, hala badagokio, dagozkion kalte-galeren ordainak. Borondatezko bajak justifikatuak eta ez justifikatuak izan daitezke.

- 1) Kasu hauek hartuko dira borondatezko baja ez justifikatutzat:
  - a) Gutxieneko egonaldian gertatutako bajak, non eta Kooperatibaren Kontseilu Errektoreak bestelakorik erabakitzen ez duen, kasuaren inguruabarrak aztertu ostean, hargatik eragotzi gabe bazkideari eskatu ahal izatea Kooperatiban nahitaez egin beharreko zituen lan eta zerbitzu guztiak betearaztea eta, hala badagokio, dagozkion kalte-galeren ordainak.
  - b) Bazkideak Kooperatibarenarekin lehian diren jardueretan arituko bada.
- 2) Kasu hauek hartuko dira borondatezko baja justifikatutzat:
  - a) Kooperatiba bateratu edo zatitzen denean, Kooperatiba-mota aldatzen denean, helburu sozialean funtsezko aldaketa gertatzen denean, edo kapitalari nahitaez ekarpen berriak egitea exijitzen denean, baldin eta bazkideak dena delako erabakiaren kontra bozkatu badu, edo, erabaki hori hartu zuen Batzar Nagusira joan ez arren, erabaki horrekiko desadostasuna adierazi badu.
  - b) Arestiko zenbakian aipatzen ez diren gainerako borondatezko bajak.

**Hiru.** Bazkide izateari uzteak eragingo du behin betiko uztea: zerbitzuak jasotzeari (bazkide erabiltzaileen kasuan), Kooperatibari laguntzeari (bazkide laguntzaileen kasuan), Kooperatiban parte hartzeari (bazkide ez-aktibo edo ez erabiltzaileen kasuan), eta bertan lan egiteari (bazkide langileen kasuan).

## **17. artikulua Bazkideen nahitaezko baja**

**Bat.** Nahitaez baja eman beharko dute Nafarroako kooperatibei buruzko Foru Legearen edo kooperatibako estatutu hauen arabera bazkide izateko bete behar diren eskakizunak galtzen dituzten bazkideek. Edonola ere, bazkideek nahitaez baja eman behar izateko arrazoi izanen dira honako hauek:

- a) bazkide izateko legezko eskakizunak galtzea,
- b) harreman sozialerako hitzartutako denbora-tartea iraungitzea,
- c) kapital sozialari nahitaez egin beharreko ekarpenen inguruko betebeharrak ez betetzea,
- d) bazkidea kanporatzea, eta

e) bazkidearen heriotza.

**Bi.** Kontseilu Errektoreak erabakiko du nahitaezko baja, ofizioz, beste bazkideren batek edo ukitutako pertsonak berak hura eskatuz gero, betiere interesdunari entzun ondoren.

**Hiru.** Kontseilu Errektorearen erabakia beteko da behin Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazi ondoren, edo helegitea aurkezteko epea bukatu ondoren. Bazkide langileen kasuan, Kontseilu Errektorearen bazkidea kanporatzeko erabakia berehala beteko da.

**Lau.** Bazkide izateko eskakizunak galtzen direnean, nahitaezko baja justifikatuz joko da, non eta galeraren arrazoia ez den Kooperatibarekiko betebeharrak bete nahi ez izatea, edo nahitaezko baja behar ez bezala baliatu nahi izatea, norberaren onurarako.

## **18. artikulua Bajaren ondorioak, eta helegiteak**

- 1) Bazkide izaera galtzen duenak ezingo ditu aurrerantzean Kooperatibak eskaintzen dituen onura eta zerbitzuak jaso ahal izanen, ezta Kooperatibari zerbitzurik eman ere.
- 2) Kontseilu Errektorearen eskumena izanen da baja kalifikatzea. Kontseilu Errektoreak kalifikazioaren gainean erabaki duenarekin edo bajaren –borondatezko zein nahitaezkoa delarik ere– ondorioekin konforme ez dagoen bazkideak, helegitea aurkezterik izanen du, horretarako estatutu hauetako 23. artikulua Bi eta Lau zenbakietan xedatutako aplikatuko delarik.
- 3) Bazkide baten baja gertatzen denean, lehenagotik kooperatibarekin hartuak zituen betebeharren gaineko erantzukizuna bost urtez luzatuko da, gehienez ere, bazkide izaera galdu zuenetik hasita.

Betebehar horiek kalkulatzeko, kontuan hartuko da bajaren egunaren hurrengo balantzeari jarraiki entitateak kapitalizatu gabe duen zenbatekoa, beti ere Batzar Nagusiak onetsi ondoren, non kontuan hartuko baita onetsitako betebehar eta inbertsio horietatik baja eman duen bazkideari ehuneko zenbat ordaintzea legokiokeen –baldin eta pertsona horrek bazkide jarraitu izan balu–, bazkideak azken hiru ekitaldi ekonomikoetan betetako lanaren arabera kalkulaturik.

Kapitalizatu gabeko zenbatekoa sozietatearen ibilgetuen eta baliabide berekien arteko aldea zehatzuz kalkulatu da.

Edonola ere, bazkidea erantzulea da bere baja gertatu aurretik kooperatibak izandako galeretan, dagokion kuotaren arabera. Kuota hori baja gertatu eta hurrengo Batzar Nagusian onesten den balantzearen gainean kalkulatu da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, bazkidea hil egiten bada eta haren bazkide izan nahi ez duten haren eskubidedunei mugatu eginen zaie gorago aipaturiko

betebeharrengatik egileari zegokiokeen erantzukizuna, haiek aitortua zuten kapital sozialaren zenbatekora mugatu ere.

### **19. artikulua Bazkide laguntzaileak. Eskubideak eta betebeharrak.**

**Bat.** Bazkide laguntzaile izanen dira kooperatibaren xede soziala betetzen lagun dezaketen pertsona fisikoak edo juridikoak, arlo sozialean zein kooperatiboan, betiere Nafarroako Kooperatiben Legearen 30.1 artikuluaarekin bat etorrita.

**Bi.** Kontseilu Errektoreak onartuko ditu bazkide laguntzaileak, zein iraupen mugatuko bazkide izan baitaitezke.

**Hiru.** Kontseilu Errektoreak adieraziko du, bere erabakien bidez, bazkide onartuek nola lagundu dezaketen eta zer eskubide eta betebeharrak dituzten. Edonola ere, 13. eta 14. artikuluetan adierazitako betebeharrak eta eskubideak izanen dituzte, baldin eta bateragarriak badira betebeharrak eta eskubide espezifikoekin eta hitzartutako laguntzarekin.

**Lau.** Bazkide horien botoen baturak ezin izanen du boto guztien bostena gainditu, ez Batzar Nagusian, ezta Kontseilu Errektorean ere, non eta bazkideak horiek sozietate kooperatiboak ez diren.



### III. KAPITULUA

#### KOOPERATIBAREN DIZIPLINA-ARAUAK

##### 20. artikulua Bazkideen hutsegite-motak

**Bat.** Honela sailkatuko dira bazkideen hutsegiteak, garrantziaren, ondorioen eta maltzurkeriaren arabera: arinak, larriak eta oso larriak.

**Bi.** Hutsegite oso larriak dira:

- a) Kooperatibaren interes materialaren edo prestigio sozialaren kalterako jardutea, esaterako: lehia-operazioetan arituz, ekarpenetan eta laguntzetan iruzurra eginez, datu garrantzitsuak ezkutatuaz, bai eta Kontseilu Errektoreko kideei edo erakundeko ordezkariari begirunerik eza nabarmena erakutsiaz eta abar.
- b) Agiriak, sinadurak, zigiluak, markak edo antzeko datuak faltsutzea, kooperatibak bere bazkideekin edo hirugarren batzuekin dituen harremanetarako garrantzitsuak direnak.
- c) Kooperatibaren sekretuak ezagutarazi edo zabaltzea, hartara haren interesak larriki kaltetuz.
- d) Beretzat hartzea Kontseilu Errektoreari edo bertako kideren bati dagozkien eginkizunak.
- e) Bazkide izateaz baliatzea espekulatzeko edo legeen aurka jokatzeko.
- f) Estatutu sozial hauetako 13. artikuluko c), f) eta g) apartatuetan adierazitako eginbeharretako batzuk urratzea.
- g) Bazkidea behin eta berriz jardutea, hitzez eta/edo egitez, kooperatibaren prestigioaren edo ondarearen kaltetan, edo, oro har, Kooperatibaren xede sozialaren kaltetan.
- h) Hitzez edo egitez tratu txarrak ematea kooperatibako beste bazkide batzuei edo langileei -halakorik balego-, organo sozialen bileraren kariaz, edo xede soziala garatzeko beharrezko lan edo jarduerak egitearen kariaz.
- i) Huts larriak behin eta berriz egitea, urtebetetik beherako epean.

**Hiru.** Hutsegite larriak dira:

- a) Behar bezala deitutako Batzar Nagusiaren bileretara justifikaziorik gabe ez joatea, bazkidea jada bi alditan zigortua izan bada hutsegite arinagatik, azken hiru urteetan organo sozial horren bileretara ez joateagatik.



- b) Elkartearen kargurako aukeratua izan eta kargu horiek arduraz ez betetzea.
- c) Huts arinak behin eta berriz egitea, urtebetetik beherako epean.

**Lau.** Hutsegite arinak dira:

- a) Batzar Nagusiaren bileretara ez joatea, justifikaziorik gabe, bazkideak horretarako deialdia behar bezala jaso arren.
- b) Bazkidearen ohiko helbidearen edo helbide sozialaren aldaketaz Kooperatibaren idazkariari ez ohartaraztea, aldaketa gertatu eta ondorengo bi hilabeteko epean.
- c) Estatutuetako, araudietako eta funtzionamendu-arauetako aginduak urratzea, gutxienez behin, ezin zurituzko ezjakiteagatik.

## **21. artikulua Hutsegiteen aurkako zehapenak**

**Bat.** Hutsegite arinengatik: Idatzizko ohartarazpena eta/edo diru-zehapena, gehienez ere hasierako nahitaezko ekarpenaren % 10ekoa.

**Bi.** Hutsegite larriengatik: "Bat" apartatuan aipatutako guztiak; diru-zehapena, gehienez ere hasierako nahitaezko ekarpenaren % 20ekoa; Kooperatibako kide anitzeko organo sozialetarako hautatua izateko desgaitzea, gehienez ere bi agintalditan.

**Hiru.** Hutsegite oso larriengatik: "Bat" eta "Bi" apartatuetan aipatutako guztiak; diru-zehapena, gehienez ere hasierako nahitaezko ekarpenaren % 50ekoa; Kooperatibako irabazietatik egokituko litzaiokeen zenbatekoa jasotzeko eskubidearen galera; kanporatzea.

## **22. artikulua Zehapen prozedura**

**Bat.** Bazkideak hutsegite sozialengatik zigortzeko, dagokion espedientea bideratuko da beti, arau hauen arabera:

- 1) Kontseilu errektoreari dagokio hutsegite sozialengatik zehapenak ezartzea, aurretik horri dagokion espedientea abiarazi delarik. Hutsegite-espedientetako agiri guztiak bi aletan beteko dira, horietako bat Kooperatiban artxibatuta geratuko delarik.
- 2) Instrukture lanean arituko dira Kontseilu Errektoreak bere kideen artetik izendatutako pertsona bat edo gehiago (asko jota hiru), beraiei dagokielarik salaketa-zerrenda edo kargu-orria formulatzea, eta bazkide akusatuari jakinaraztea hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa, dagokion zigor-proposamena eta zuribide-orria emateko epea (betiere 10 egunetik gorakoa, jakinarazpenetik kontaktzen hasita).

- 3) Bazkideari dagokio zuribide-orria idatzi eta Kontseilu Errektoreari igortzea. Aurretiaz interesdunari entzunaldi onartua egin zaiolarik, Kontseilu Errektoreak erabakiko ditu hutsegiteari dagozkien behin betiko kalifikazioa eta zigorra.
- 4) Hutsegite larri eta oso larriengatik Kontseilu Errektoreak emandako zigor-erabakiei helegitea aurkeztu ahalko zaie Batzar Nagusiaren aurrean, zigor-erabakia jakinarazi eta 30 egun igaro baino lehen. Batzar Nagusiaren erabakien aurka jo ahal izanen da prozesu-izapide bidez, Nafarroako Kooperatiben Legearen 24. artikuluan xedatutakoarekin bat.
- 5) Arau-hauste arinak sei hilabeteko epean preskribituko dira, larriak bi urteren buruan eta oso larriak hiru urteren buruan.
- 6) Preskripzio-epa hutsegitea egin den egunetik hasiko da kontatzen, eta, edonola ere, hura egin eta hamabi hilabeteko epean amaituko da.
- 7) Preskripzio-epa eten egingen da zehapen-prozedura abiaraztean, eta berriz ekingo zaio, baldin eta 4 hilabeteko epean ez bada erabakirik ematen, ez jakinarazten.
- 8) Zigorrek indarra izanen dute halakorik aurkeztu gabe helegitea aurkezteko epea bukatu den edo behin betiko zigor-erabakia hartu den egunaren biharamunean.

### 23. artikulua Kanporatzea


**Bat.** Soilik estatutuetan jasotako falta oso astunagatik erabaki dezake Kontseilu Errektoreak bazkide bat kanporatzea, horretarako hasitako espedientearen bidez eta interesatuari aurretik entzun ondoren.

**Bi.** Bazkideak helegitea aurkeztu ahal izanen du kanporatze-erabakiaren aurka Batzar Nagusiaren aurrean, hogeita hamar eguneko epean, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera kontaturik.

Batzar Nagusiaren aurrean aurkeztutako helegitearen auzia hura aurkeztu eta egiten den lehen bileraren gai-zerrendan jaso beharko da berariaz, eta isilpeko bozketa bidez ebatziko da, interesdunari aurretik entzun ondoren.

**Hiru.** Kanporatze-erabakiak indarra izanen du Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazten denetik, edo hari helegitea aurkezteko epea amaitzen denetik. Bazkide langileen kasuan, Kontseilu Errektoreak bazkidearen aurka hartutako kanporatze-erabakia berehala izanen da indarrean. Kontseilu Errektorearen erabakia beteko da behin Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazi ondoren, edo helegitea aurkezteko epea bukatu ondoren.

**Lau.** Behin Batzar Nagusiak kanporatze-erabakia berretsi ondoren, erabakiaren aurka jo ahal izanen da auzibidetik, bi hilabeteko epean.



## 24. artikulua Barne-antolaketa funtzionalaren oinarriak

- 1) Hauek dira lana antolatzeari eta ordaintzeari dagozkienak:
  - a) Kontseilu Errektorearen eskuordetza bitarte, zuzendari-kudeatzaileari dagokio lanaren antolaketa eta laneko diziplina ezartzea eta aplikatzea.
  - b) Bazkide langileek lansari-aurrerakinak jasoko dituzte, lanpostuaren arabera, eta aintzat hartuta bertan aritzean duten eraginkortasuna eta errendimendua.
  - c) Hilero-hilero, bazkide langileek lansari-aurrerakinak jasoko dituzte, zeinak hileko zenbatekotan ez baitira inolaz ere lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak izanen.
  - d) Lansari-aurrerakinak maiztasun jakin batez eta Kooperatibaren emaitza ekonomikoen gain jasotako sariak dira; ez dira, beraz, soldata. Horren ondorioz, emaitza horien arabekoak izanen dira, azken batean, sarien zenbatekoak.
  - e) Kontseilu Errektoreak zehaztuko ditu Nafarroako kooperatibei buruzko 14/2006 Foru Legearen 67. artikuluan aipatzen diren lansari-aurrerakinak, urtean lan egin beharreko ordu-kopurua eta gainerako kontuak; alabaina, lansari-aurrerakinen gehieneko zenbatekoek ezin izanen dute maila profesionalaren eta jardueraren arabera sektoreko soldatapeko langileei aplikatzekoa zaien lan hitzarmenean ezarritako ordainsarien % 150 gainditu.
- 2) Pertsona fisikoei dagozkien zerga-kontuak bazkide langileen kontura joanen dira, eta inolaz ere ez Kooperatibaren gain.
- 3) Bazkide langileen lan-erregimenari dagozkien kontuak Barne-araudian zehaztuko dira, betiere estatutu hauetan xedatutakoa errespetatuz.
- 4) Bazkide langileen -finkoen zein probaldian daudenen- Gizarte Segurantzaren estaldurari dagokionez, eta inoren konturako langiletzat hartuak direnez gero, Kooperatibak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuko ditu.
- 5) Kooperatibaren soldatapeko langileek ezin izanen dute lansaritan jaso sektoreko soldatapeko langileen lan-hitzarmen kolektiboan -jarduera eta kategoria profesionalaren arabera- ezarritako lansarien % 150 baino gehiago.



## IV. KAPITULUA

### KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

#### 25. artikulua **Organo sozialak**

**Bat.** Organo sozial hauek osatuko dute Kooperatiba, horietako bakoitza bere eskumenen titular eskusiboa izanzen delarik:

- Batzar Nagusia.
- Kontseilu Errektorea.
- Kontu-hartzaileak.

**Bi.** Kooperatibak bere funtzionamenduan eta garapenerako egoki jotako behar beste organo sortu ahalko du, baita bakoitzari berak erabakitako ahalmenak eman ere, Legeak ezinbesteko organoei esleitzen dizkienak izan ezik.

#### 26. artikulua **Batzar Nagusia**

**Bat.** Bazkideen batura da Batzar Nagusia, bere eskumeneko kontuei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko eratu.

Batzar Nagusiaren erabakiek indarra dute hartzen diren egunetik aurrera, eta akordio horiek bazkide guztiak behartzen dituzte, baita disidenteentzat eta batzarrera agertu ez direnentzat ere.

**Bi.** Batzar Nagusiaren eskumen eskusiboa da erabaki hauek hartzea:

- a) Kontseilu Errektoreko kideak eta kontu-hartzaileak izendatzea eta kargutik kentzea.
- b) Kontseiluaren kudeaketa aztertzea eta kontuak, balantzeak, soberakinen banaketa, itzulkinak eta galeren egozketak eta egin gogo diren inbertsioen politika onestea, betiere inbertsio horiek kooperatibaren ibilgetuaren eskurapen-balioaren eta Foru Lege honen 47. artikuluan ezarritako baliabide berekien % 50etik gorakoak badira.
- c) Onestea, hala badagokio, Barne-araudia, eta antolamendu eta funtzionamendurako behar diren erabakiak hartzea, bai eta sozietate kooperatiboaren bateratzea, desegitea eta likidaziorako ere.
- d) Atalak sortu eta desegitea, Foru Legearekin bat etorruta.
- e) Estatutuak aldatzea.

f) Estatutuetan edo Foru Legean emandako beste edozein eskumen.

**Hiru.** Batzarrak ezin izanen du eskuordetu aurreko apartatuko a), b), c) eta d) letretan adierazitako gaien gainean duen eskumena.

## **27. artikulua Batzar Nagusiaren deialdia**

**Bat.** Batzar Nagusiaren bilerak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke, eta Kontseilu Errektoreari dagokio horietara deitzea.

**Bi.** Batzar Nagusi Ohikorako deialdia ekitaldi soziala amaitu eta hurrengo sei hilabeteen barruan egin beharko da. Ez bada epe horren barruan deialdirik egiten, edozein bazkidek egin ahalko dio Kontseilu Errektoreari deialdia egiteko errekerimendua, notario bidez edo bestelako edozein bide sinesgarri erabiliz. Errekerimendua egin eta hurrengo 15 eguneko epean Kontseilu Errektoreak ez badu deialdirik egiten, bazkideak batzarrerako deia egin dezala eskatu ahal izanen dio sozietatearen egoitza dagoen lekuko lehen auzialdiko epaileari, zeinak Batzar Nagusia deia egin, eta haren buru nor arituko den erabakiko behar baitu. Batzar Nagusi hori ohikoa izanen da, epez kanpo deitua izan arren.

**Hiru.** Batzar Nagusi Ezohikoa edozein unetan bilduko da, Kontseilu Errektorearen berezko ekimenez edo bazkideek eskatuta –baldin eta bazkide-multzo horrek boto guztien % 20, gutxienez, ordezkatzan badu–, Kontseilu Errektoreari agiri sinesgarri bidez eskaera eginda, non eztabaidatzeko gaien eta proposamen gai-zerrenda jasoko den. Eskaera jaso eta hogeita hamar eguneko epean ez bada egiten Batzar Nagusiaren bilerarako deialdirik egiten, epaile bidezko deialdia eskatzerik izanen da, aurreko zenbakian aurreikusitakoaren arabera.

**Lau.** Deialdia egin eta hurrengo bost eguneko epean, boto guztien % 10 baino gehiago ordezkatzan duten bazkideek gai-zerrendan gai bat edo gehiago sartzeko eskatu ahal izanen diote Kontseilu Errektoreari, idatziz. Kontseilu Errektoreak gai horiek kontuan hartu eta gai-zerrenda berria legeak eskatzen duen publizitatearen arabera argitaratu beharko dute, Batzarra izan baino lau egun lehenago gutxienez. Batzarraren bilera-eguna ezin izanen da inolaz ere atzeratu.

**Bost.** Batzar Nagusia biltzeko deialdia egoitza sozialean eta Kooperatibak bere jarduera garatzen duen leku guztietan jartzen ahal da jendaurrean modu nabarmenean, eta baita bazkideekiko harremanetan baliatzen dituen komunikabide telematikoetan.

**Sei.** Deialdiaren jakinarazpen publikoa egiteko aurrerapena hamar egunekoa izanen da gutxienez, eta hirurogei egunekoa gehienez.

**Zazpi.** Deialdian zehaztu beharko da, gutxienez, zein egunetan, zein ordutan eta non izanen den bilera, lehenengo zein bigarren deialdian, bien artean ordu erdiko tartea utzi beharko delarik gutxienez. Horrez gain, garbi, zehatz eta behar besteko xehetasunez beharko dira gai-zerrenda osatzen duten gaiak.

**Zortzi.** Artikulu honetako aurreko apartatuetan ezarritakoa eragotzi gabe, baliozkoak izanen dira deialdi gabeko bilerak, baldin eta bazkide guztiak bertan edo ordezkatuta egonik, aho

batez erabakitzen badute Batzar Nagusi unibertsala sortzea. Horretarako, denek onartu eta izenpetu behar dituzte gai-zerrenda eta bertaratutakoena, nahiz eta gero ez duten denek bileran geratu beharrik izanen.

## 28. artikulua Batzar Nagusiaren funtzionamendua

**Bat.** Unibertsala ez bada behintzat, Batzar Nagusia Kooperatibaren egoitza soziala dagoen herrian egingen da, edo Kontseilu Errektoreak zehazten beste edonon, baldin eta horretarako arrazoi justifikaturik badago.

**Bi.** Batzar Nagusia baliozkoa izanen da, lehen deialdian, baldin eta bildutako edo ordezkaturako bazkideek botoen gehiengoa badute; eta bigarren deialdian, edozein delarik bertan bildutako edo ordezkaturako botoen kopurua.

Batzarrera joateko eskubidea izanen dute Batzar Nagusirako deialdia egindako egunean bazkide direnek.

**Hiru.** Bazkideek eskubidea dute haien ordezkaritza emateko, idatziz, eta izaera bereziz, beste bazkide batzuei, Batzar Nagusi bakoitzerako.

Batzar unibertsalaren kasuan, aurreikusitako gai-zerrenda ere jaso beharko da ordezkari gisa parte hartzen dela egiaztatzen den idatzian.

Bazkideek ezin izanen dute, bakoitzak bereaz gainera, bi baino gehiago ordezkatu. Ordezkaritza baliogabegarria da; Bazkide ordezkaturak Batzar Nagusian bertaratzeak ordezkaritza ezeztatzeko indarra izanen du.

**Lau.** Kontseilu Errektoreko lehendakaria arituko da Batzar Nagusiaren buruan; hark ezin badu, lehendakariordea arituko da, eta horrek ere ezin badu, Batzarrak berak erabakitzen duen bazkidea.

Batzarreko lehendakariaren egitekoak izanen dira eztabaidak bideratzea; Batzarreko gai-zerrendari eusten zaiola zaintzea; ez desbiderapenak eta gai-zerrendan ez dauden gaiak buruz -non eta ez diren Legeak bereziki baimenduak- erabakiak hartzea galaraztea; Batzarra behar bezala burutu dadin zaintzea; eta lege-formalitateak betearaztea.

Kontseilu Errektoreko idazkaria arituko da Batzar Nagusiaren idazkari lanetan; hark ezin badu, Kontseiluko kiderik gazteena arituko da idazkari, eta horrek ere ezin badu, Batzarrak berariaz aukeratzen duena.

**Bost.** Baliogabeak izanen dira gai-zerrendan jaso gabeko gaiak buruzko erabakiak, Legeak berariaz baimentzen dituen kasuetan izan ezik.

**Sei.** Kontseilu Errektoreko kideek Batzar Nagusiko bileretara joan beharra izanen dute, arrazoi justifikaturen bat izan ezean, eta, beharrezkotzat jotzen badute, bazkide ez izan arren Kooperatibaren aferen onbidean interesa duten pertsonak joan ahalko dira, aurretiaz Kontseilu Errektoreak deitu eta gonbidatu badituzte.

**Zazpi.** Idazkariak bileraren akta idatziko du, datu hauek adierazita: bilera non eta noiz egin den, deialdia noiz eta nola egin den, deialdiaren testu osoa, zenbat bazkide bildu diren, zehaztuta zenbat bertaratu diren eta zenbaten bidali duten ordezkaria, baita bilera lehen edo bigarren deialdian egin den, eztabaidatutako gaien laburpena, aktan jaso daitezela eskatutako esku-hartzeen laburpena, hartutako erabakien edukia, bozketen emaitzak, eta aktaren onespina, bilera bukatu ondoren hala gertatuz gero.

Bertaratu diren pertsonen zerrenda aktaren hasieran agertuko da, edo idazkariaren sinadura eta lehendakariaren oniritzia dituen eranskin batean joanen da.

**Zortzi.** Akta Batzarrak berak onartu ahal izanen du, hura amaitu ondoren, edo, bestela, ondorengo hamabost eguneko epean, lehendakariak eta Batzarrak berak aukeratutako bi kidek, zeinek idazkariarekin batera sinatu beharko duten.

**Bederatzi.** Batzarrera bertaratutako edonork izanen du aktaren edo erabakien testu osoaren ziurtagiriak eskatzeko eskubidea. Ziurtagiria egiten den egunean idazkari denak emango ditu ziurtapenok, lehendakariaren oniritziarekin.

**Hamar.** Erabakiek eragina izanen dute hartu diren unetik beretik.

**Hamaika.** Erabaki inskribagarriak akta onetsi ondorengo hogeita hamar egunen epean aurkeztu behar dira Kooperatiben Erregistroan.

## **29. artikulua Boto-eskubidea**

**Bat.** Bazkideek boto bana izanen dute.

## **30. artikulua Gehiengoak**

**Bat.** Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratu direnen artean behar bezala emandako botoen erdiarekin baino gehiagorekin hartuko dira. Ondorio horietarako, ez da boto zuririk zein abstentziorik zenbatuko.

**Bi.** Kooperatiba aldatzeko, bateratzeko, zatitzeko edo desegiteko, bertaratu diren bazkideen eta ordezkartuta daudenen botoen bi heren beharko dira.

## **31. artikulua Batzar Nagusiaren erabakien aurka egitea**

**Bat.** Legeen eta lege maila duten arauen kontrako erabakiak erabat deusezak dira eta edozein bazkidek inpuñatu ahalko ditu, deklarazioko epaiketa arruntaren bidez edo hurrengo apartatuan aurreikusitako prozedura bereziaren bitartez, eta bertan zehazten den epean.

**Bi.** Berrogei egun naturaleko epean inpugnatu ahalko dira estatutuen kontrako erabakiak, bai eta bazkide baten edo batzuen mesedetan Kooperatibaren interesen kaltetan direnak, erabakia hartzen denetik edo Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskripzioa egiten denetik aitzina, betiere Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategineko 207. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozeduraren arabera.

**Hiru.** Inpugnazio ekintza egiteko legitimaturik daude erabakiaren aurkako botoa aktan jaso dadin eskatu duten bazkideak, bertan egon ez direnak, eta botoa emateko eskubidea bidegabe ukatu zaienak.

### **32. artikulua Kontseilu Errektorea. Izaera eta eskumenak**

**Bat.** Kontseilu Errektorea sozietate kooperatiboaren gobernu, kudeaketa eta ordezkaritza organoa da, eta Foru Lege honen eta estatutuen arabera arituko da.

**Bi.** Estatutuaren arauetan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, Kontseilu Errektoreak eskumen hauek ditu:

- a) Bazkideen onarpena eta baja erabakitzea, estatutu hauetan aurreikusitakoarekin bat.
- b) Erantzukizun osoz, eta hura eskuordetzeko ahalmenarekin, Kooperatiba ordezkatzea era guztietako egintza eta kontratuetan, bereziki parte hartzen duen erakundeetako organo sozialetan.
- c) Zuzendari-kudeatzailea izendatzea eta, honek proposatuta, sailtako zuzendariak, baita horiek kargutik kentzea ere, eta berorien ahalmenak, eginbeharrak eta ordainsariak finkatzea, eta, hala behar izatera, horien aurkako erantzukizun-ekintzak gauzatzea
- d) Berez berari dagokion enpresa-kudeaketa zein pertsona fisiko edo juridikori eskuordetu dien, haien jarduera zuzenean eta etengabe fiskalizatzea.
- e) Langileen baldintza ekonomikoak eta lankidetzeta-baldintzak ezartzea.
- f) Estatutu-eskubide eta -betebeharrekin, lanaren antolaketarekin, eta bazkideen lan-eta diziplina-araubidearekin zerikusia duten gorabeheri buruz erabakitzea.
- g) Kooperatibaren kudeaketa-jarduketaren jarraibide orokorrak finkatzea, betiere Batzar Nagusiak ezarritako politika orokorrari jarraiki.
- h) Kooperatibaren jarduna antolatu, zuzendu, kudeatu eta ikuskatzea, eta Batzar Nagusiaren aurreani aurkeztea, jakinaren gainean egon dadin, epe luzerako kudeaketa-planak, urtekoak eta estrategikoak, Kooperatibaren politika eta estrategien proposamenekin batera, behin Kontseilu Errektoreak onartu ondoren.



- i) Beharrezko erabakiak hartzea Kontseiluko kideek karguari uko egiteari buruz, hutsik dauden postuak ordezkatzeari buruz, eta, oro har, organoaren beraren barne-araudi funtzionalari buruz, bai eta erabakiak baliogabetzeko egintzak abiaraztea, halakorik egin beharko balitz eta/edo haren eskumenekoak balira.
- j) Kooperatibaren estatutu sozialetan eta Barne-araudian egoki iritzitako aldaketak proposatzea Batzar Nagusiari.
- k) Estatutu edo araudietako aginduak zuzen aplikatzeko, edo Batzarraren erabakiak gauzatzeko beharrezkoak diren araudi funtzionalak onartzea.
- l) Helburu soziala gauzatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren egintzak eta kontratuak gauzatea, alde batera utzi gabe higiezinak erosi edo besterentzeari buruzkoak, eskubide errealak eratzeari buruzkoak, eta hipotekei buruzkoak, eta errentamenduko berezia, bai eta Kooperatibak estatutu hauetan baimentzen dituen negozio eta eragiketa guztiak ebaztea ere.
- m) Kooperatibari komeni dakizkiokeen kreditu- eta mailegu-eragiketen zein, sinadura-bermeen gainean erabakitzea, baldin eta ez badira Batzar Nagusiak erabakitzeoak.
- n) Hirugarrenen aldeko fidantza edo abalak ematea baimentzea, bai eta bigarren mailako kooperatibetan ere, sozietatearen funtsen % 10 gainditzen denean.
- o) Erakunde publiko eta pribatuen aurrean abalak ematea, eta Zuzenbidean onartutako era guztietako titulua -zor publikokoak zein balore higigarri edo higiezinak- erostea, saltzea, sinatzea eta gordailutzea, eta baita horiek egoki iruditzen zaion bezala atxikitzea ere.
- p) Ekarpinak harpidetzeko eta bono eta obligazioak jaulkitzeko beharrezko erabakiak hartzea, betiere Batzar Nagusiak aurretiaz erabakitakoarekin bat.
- q) Inbertsioen politika planifikatzea, Batzar Nagusiak onets dezan. Alabaina, batzarraren onespenerik gabe bideratu ahaliko ditu Kooperatibaren inbertsio-proiektu jakin batzuk, hain zuzen ere haren ibilgetuaren eskurapen-balioaren edo Foru Lege honen 47. artikuluan ezarritako baliabide berekien % 50 gainditzen ez dutenak.
- r) Funts erabilgarrien, erreserba-funtsen, hezkuntza-funtsen eta gizarte-sustapeneko funtsen inbertsioa zehaztea, Batzar Nagusiaren akordioak errespetatuta; aurrekontuak osatzea; gastuak baimentzea, eta Kooperatibaren ahalduak eta ordezkariak izendatzea, eta ordezkari horiei kontseiluari komenigarriak iruditzen zaizkion ahalmenak ematea.
- s) Ohiko Batzarrari kudeaketaren azalpenezko oroit-idazkia, urteko kontuak, eta soberakin garbieraren banaketa edo galeren egoztearen aurkeztea, bai eta bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpinak, aldizkako kuotak eta ezohiko kuotak zehaztea ere.

- t) Batzar Nagusiaren bilerak deitzea, prozesu horretan sortzen diren auziak konpontzea eta Batzarrean hartzen diren erabakiak gauzatzea.
- u) Kooperatibari dagozkion eskubide edo egintzen erabilerari buruz egoki irizitakoa erabakitzea, auzitegi eta epaitegi arrunt edo berezien aurrean, eta Estatuko, lurralde autonomoetako administrazioetako, probintzietako edo udalerrietako bulego, agintari, korporazio edo erakundeen aurrean; eta ondorio horietarako kooperatiba ordezkatu eta haren defentsa egiteko ordezkariak, prokuradoreak edo letraduak izendatzea; eta horiei dagozkien eskumenak ematea, beharrezkoa den eran, baita jarduera hauetarako ere: adiskidetzetan, espedienteetan, auzietan, erreklamazioetan, errekursoetan edo era guztietako jardueretan bat etortzeko edo atzera egiteko, prozeduraren egoera edozein dela ere; prozeduraren etetea eskatzeko, eta beharrezkoa den edozertarako, baita judizialki zabaltasun osoz amore emateko ere.
- v) Funtsak eta ondasun sozialak erabiltzea, eskatzea, jasotzea eta kobratzea, partikularrenak zein bulego publikoenak, Kutxa Nagusian edo gizarte interesentzat komenigarritzat jotzen den beste edonon gordailuak jartzea edo bertatik gordailuak ateratzea. Bankuko kontu korranteak eratzea, eskudirutan edo baloreekin, eta horietatik eskudirua edo baloreak ateratzea eta, oro har, era guztietako banku-eragiketak burutzea erakunde nazionalekin edo atzerritarrekin, baita Espainiako Bankuarekin ere. Korrespontsalen eskuetan dauden Kooperatibaren funtsak eta ondasunak erabiltzea. Kanbio-letrak, agindurako ordaindukoak eta gainerako merkataritza- eta igorpen-efektuak igortzea, endosatzea, abalatzea, onartzea, negoziatzea eta ordaintzea; eta protesta egitea horiek ez onartzeagatik edo ez ordaintzeagatik.
- w) Pertsona jakin batzuei ahalordeak ematea, ondorio zehatzetarako edo gizarte-jardueraren arlo jakin batzuk zuzentzeko.
- x) Batzar Nagusiari proposatzea, hala badagokio, Kooperatibaren konkurtso-deklarazioa eta likidazioa, eta prozesu horietan haren eskumenekoak diren faseak betetzea.
- y) Estatutu hauek interpretatzerakoan gerta daitezkeen zalantzak ebaztea, eta egiten den lehenengo Batzar Nagusian horren berri ematea.
- z) Estatutu hauetan bereziki adierazitakoak eta Foru Legearen bidez egotzitako beste edozein.
- aa) Eskuordetu ezinak dira d, g, n, q eta s apartatuetan adierazitako eskumenak.

**Hiru.** Zerrenda honetan izendatu baino ez dira egiten Kontseilu Errektorearen ahalmenak; horrenbestez, zerrendak ez ditu Kontseiluaren ahalmenak mugatzen, non eta legeak ez duen Kooperatibaren beste organo sozial batzuen eskumen eskusibotzat jotzen.

### 33. artikulua **Kontseilu Errektorea osatzea eta berritzea**

**Bat.** Kontseilu Errektorea 10 pertsonaz osatuko da, horietako hiruk lehendakari, lehendakariorde eta idazkari karguak hartuko dituztelarik.

**Bi.** Batzar Nagusiak hautatuko ditu Kontseilu Errektoreko kideak, isilpeko bozketa bidez, emandako baliozko boto guztien kopururik handienari jarraiki.

Kontseiluko kide titularrak izendatzearekin batera, hiru ordeko hautatuko dira.

Agintaldiaren iraupena lau urtekoa izanen da, eta kide guztiak aldi berean berrituko dira; behin baino gehiagotan hautatuak izan daitezke.

Agintaldia amaitu ondoren, Kontseiluko kide titularrek karguan jarraituko dute, harik eta batzar nagusiak hautatutako kide berriek kargua onartzen duten arte.

**Hiru.** Isilpeko bozketa bidez, Batzarrak hautatuko ditu lehendakari, lehendakariorde eta idazkari karguak hartuko dituzten pertsonak, gainerako hautatuak kontseilukide izanen direlarik.

**Lau.** Kontseilu Errektoreko kideetako batek bere tokia behin betiko uzten badu, lehen ordekoa jartzen ahal da berehala haren tokian, eta hor egongo da ordezkatuari estatutu hauen arabera gelditzen zitzaien denboran zehar.

Lehendakaria aldi baterako kanpoan denean, lehendakariordeak ordeztuko du, eta bere gain hartuko ditu hark eskuordetutako zereginak. Falta dena idazkaria bada, Kontseiluko kiderik gazteena arituko da haren orde.

Kontseilu Errektoreak onar dezake kontseilukideek dimisioa ematea edo kargua uztea justifikatzen badute; edonola ere, dimisioa edo kargu-uztea Batzar Nagusiaren aurrean egin dezakete, baita eguneko gai-zerrendan ez badago ere, eta, hala gertatuz gero, Batzarrak erabakiko du.

Kontseiluko kideen izendapenak indarra hartuko du kargua onartzen duten unean, eta izendapen horiek Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko dira gertatu eta hurrengo hamar eguneko epean, izendatu bakoitzaren izen-deiturak, nortasun nazionalaren agiriaren zenbakia, helbidea eta nazionalitatea agerraraziz.

**Bost.** Ondoko hauek ezin izanen dira Zuzendaritza Kontseiluko kide izan:

- a) Porrot eginak eta birgaitu gabeko konkurtsatuak, bai eta legez ezgaiturik daudenak ere.
- b) Bateriaezinak dira Kontseilu Errektorean hartu beharreko karguarekin honako pertsona hauek:
- c) Filial ez diren beste sozietate batzuetan karguak dituztenak, baldin eta bien helburu sozialetan berdintasuna edo kidetasuna badaude.

- d) Norberaren nahiz besteren kontura, Kooperatibaren jarduerarako lehiakoak edo antzekoak diren jardueretan aritzen direnak, non eta ez duen Batzar Nagusiaren aldeko erabakia, bertaratu direnen eta ordezkatuaren botoen bi herenek hartua.
- e) Funtzionario publikoak, baldin eta haien ardurako eginkizunek kooperatibaren eginkizun berekiekin zerikusia badute.
- f) Kooperatibetako zuzendariak eta haien ahaideak, bigarren maila bitarteko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna dutenak.

**Sei.** Batzar Nagusiak Kontseilu Errektoreko kideak kargugabetu ditzake, gai-zerrendan halakorik agertzen ez bada ere. Hala ere, kasu horretan, Batzarrera agertutakoen eta ordezkaturakoen kargugabetzearen aldeko bozen bi herenen gehiengo kualifikatua beharko da.

Kontseilu Errektoreko kideren bat kargugabetuz gero, Batzar Nagusiko bilera berean aukeratuko da Kontseiluko kide berriak, nahiz eta gai-zerrendan halakorik ageri ez.

**Zazpi.** Kontseilu Errektoreko kideen kargugabetzeak, arrazoia edozein delarik ere, Kooperatiben Erregistroan agertzen den egunetik aurrera izanen du eragina hirugarrenen aurrean.

### 34. artikulua Kontseilu Errektorearen funtzionamendua

**Bat.** Kontseilu Errektorea hiru hilean behin bilduko da nahitaez, edo ezohiko deialdi bidez, Kontseiluko kideren baten eskari arrazoitua egiten badu, eta eta bileretan bere eskumeneko gai guztiak azter eta erabaki ditzake.

**Bi.** Lehendakariak edo haren ordezkariak egiten du Kontseilu Errektorearen bileretarako deia, bere ekimenez edo edozein kontseilukideek eskatuta, organoa osatzen dute kide bakoitzari zuzendutako idazki bidez.

Lehendakariak ez balu, zazpi eguneko epean, aurreko apartatuan aurreikusitako ezohiko bilerarako deialdia, eskari arrazoitua egin duen Kontseilukideak egin ahalko du Kontseilu Errektorearen bilerarako deia, baldin eta organo horretako kideen erdia gehi bat baldin horren alde badaude.

**Hiru.** Kontseilu Errektorea balioz eratu dela ulertuko da bileran gutxienez kideen erdiak bertaraturik edo ordezkaturik daudenean, eta erabakiak gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Kontseilukideek boto bana izanen dute. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.

**Lau.** Bileraren aktan izandako eztabaiden laburpena, erabakien testua, eta bozketen emaitzak jasoko dira, eta lehendakariak eta idazkariak sinatu ostean, Kontseilu Errektorearen akta-liburuan transkribatuko da.

**Bost.** Bilerara deitu ahal dira, halaber, baina boto eskubiderik gabe, Kooperatibaren zuzendaria eta gainerako kargu teknikoak, bai eta beste pertsona batzuk ere, sozietatearen aferen onbidean interesa baldin badute.

### **35. artikulua Kontseilu Errektoreari buruzko xedapenak**

**Bat.** Kontseilu Errektoreko lehendakariari dagozkio:

- a) Kontseilu Errektorearen izenean Kooperatibaren ordezkari izatea era guztietako kontuetan, bai eta Kontseilu horren eta Batzar Nagusiaren bileretan buru egitea ere.
- b) Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak betetzeko ahalordeak ematea eta agiri publiko nahiz pribatuak izenpetzea.
- c) Erabakiak hartzerakoan Kontseilu Errektorean sor daitezkeen berdinketak bere botoaz ebatzea.
- d) Premiazko erabakiak hartzea, horien berri berehala eman beharko duelarik Kontseilu Errektoreak eginen duen hurrengo lehen bileran.
- e) Sinadura bitarte, egin beharreko ordainketak baimentzea.
- f) Kontseilu Errektoreak eskatzen dizkion egintza, izapide eta zeregin oro burutzea.

**Bi.** Baldin eta lehendakaria kanpoan bada, edo gaixo, lehendakariordeak ordezkatu du, eta kargu hari dagozkion zereginetan arituko da, jardunean. Era berean, Kontseilu Errektoreak eta lehendakariak eskatzen dizkion izapidetan arituko da, bereziki lehendakariak Kontseilu Errektoreko beste kide batzuei eskuordetzan eman diezazkien izapidetan.

**Hiru.** Funtzio hauek dagozkio idazkariari:

- a) Espedienteak abiarazi eta behar bezala izapidetzea.
- b) Lehendakariari edo lehendakariordeari ez dagozkion gutunak eta dokumentuak sinatzea.
- c) Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen bileretarako deialdiak idatzi eta bideratzea.
- d) Organo horiek egindako bileren aktak egitea.
- e) Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen artxiboa, erregistro-liburuak eta akta-liburuak gordetzea.
- f) Kooperatibaren liburu eta dokumentuei buruzko ziurtagiriak ematea.

- g) Kontseilu Errektoreak egozten dizkionak.
- h) Idazkariak kargua uzten badu, agertzen ez bada edo gaixorik badago, Kontseiluko kiderik gazteenak ordezkatu du. Falta dena idazkaria bada, Kontseiluko kiderik gazteena arituko da haren ordeiz.

### **36. artikulua Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizunak eta erantzukizun-egintza**

**Bat.** Kontseilu Errektoreko kideek ez dute berariazko ordainsaririk jasoko karguan aritzearen truke, doako izaera baitute kargu horiek guztiek. Nolanahi ere, zereginak eragin ditzaketen gastuak ordainduko zaizkie.

**Bi.** Kontseilu Errektoreko kideek ordezkari leialei dagokien zintzotasunez eta arduraz arituko dute beren karguetan, eta Legearen edo estatutuen kontra egitearen edo behar bezala ez jardutearen ondorioz sorrarazitako kalteen erantzule izanen dira.

Erantzukizun solidarioa dute egintza kaltegarria gauzatu edo erabaki kaltegarria hartu duen organoaren kide guztiek, salbu eta honako hau frogatzen dutenek: erabakia hartu edo betearaztean esku ez hartzeaz gain, ez zekitela erabaki hori hartu zenik, edo, jakin arren, kalteak saihesteko beharrezkoa zen guztia egin zutela, edo, gutxienez, espresuki jo zutela erabakiaren aurka.

Egintza edo erabaki kaltegarria Batzar Nagusiak hartua, baimendua edo berretsia izanik ere, ez dira erantzukizunetik salbuetsita geldituko.

**Hiru.** Administratzaileen aurkako erantzukizun-egintza soziala egikaritu ahal izanen du Kooperatibak, aurrez Batzar Nagusiak gehiengo soilez aldeko erabakia hartu duelarik, nahiz eta gai-zerrendan halakorik agertu ez. Batzar Nagusiak edonoiz eman ahalko dio baiezkoa nahiz ezezkoa erantzukizun-egintza egikaritzeari. Batzar Nagusiak erantzukizun-egintza bultzatzea erabakiz gero, Kontseilu Errektoreko ukitutako kideak kargutik kanpo geratuko dira berez eta besterik gabe.

Erantzukizun-egintza egikaritzeko erabakia hartu ondoko hiru hilabeteetan Kooperatibak berak egintzari ekiten ez badio, edozein bazkidek ekin ahal izanen du.

**Lau.** Erantzukizuna eragin zuten gertakarietatik bost urteko epearen buruan preskribatuko da egintza.

**Bost.** Aurreko zenbakietan erabakitakoa gorabehera, guzti horretatik kanpo geratzen dira bazkide edo hirugarren ez-bazkideei dagozkien norbanako egintzak, hain zuzen ere Kontseilu Errektoreko kideek zuzen-zuzen haien kaltetan egindakoen aurkakoak.

**Sei.** Kontseilu Errektoreko kideek beren eginkizun berekiez gain, lanbide-sekretua gorde beharko dute, baita karguak utzi ondoren ere.

### **37. artikulua Erabakien aurka egitea**

**Bat.** Batzar Nagusiko erabakiak inpugnatu egin daitezke, baldin eta Legearen, estatutuen edo bazkide baten edo batzuen nahiz hirugarren baten mesedetan, Kooperatibaren interesen kontrakoak badira.

Baliogabeak izanen dira Legearen aurka hartutako erabakiak, eta aipatutako gainerakoak baliogabetu egin daitezke.

Erabakia ezin izanen da inpugnatu baldin eta hura ondoriorik gabe utzi bada edo beste erabaki batek baliozkotasunez ordeztu badu.

**Bi.** Honako hauek inpugnatu ditzakete erabaki baliogabeak:

- a) Bazkide guztiek, erabakia hartu eta 40 eguneko epean.
- b) Kontseilu Errektoreko kideek, erabakia hartu eta 40 eguneko epean.

**Hiru.** Honako hauek inpugnatu ditzakete baliogabetu daitezkeen erabakiak:

- a) Aktan erabakiaren aurkako botoa eman dutela jakinarazi duten bazkideek, bertan izan ez direnek eta boto emateko eskubide zilegia ukatu zaienek, Bi a) apartatuan aipatutako epean.
- b) Kontseilu Errektoreko kideek, Bi b) apartatuan aipatutako epean.

### **38. artikulua Zuzendari-kudeatzailea. Izendapena eta kargu-uztea. Karguaren betebeharrak eta erantzukizunak.**

**Bat.** Kontseilu Errektoreak zuzendari-kudeatzaile bat izendatu dezake, Kooperatibaren jarduera modu profesionalizatuan kudeatu ahal izateko.

**Bi.** Zuzendari-kudeatzailearen izendapena eta haren funtzioak arau hauen menpekoak izanen dira:

- a) Haren eskumenak Kontseilu Errektoreak eskuordetzan emanak izanen dira beti, eta Kontseiluaren kontrol iraunkor eta zuzenaren menpe arituko da betiere, zeinak organo sozial horrek berak onetsitako kudeaketa-helburuen betekizuna exijituko baitio.
- b) Kontseilu Errektorea izanen da, halaber, zuzendari-kudeatzailea izendatzeko eta kargugabetzeko eskumena duen organoa. Izendapena eta kargu-uztea Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira; emandako ahalmenen ahalorde-eskrituraz gain.
- c) Kargu horretan den pertsonari aplikagarri izanen zaizkio Kontseilu Errektorearentzat aurreikusitako erantzukizun-arauak, nahiz eta erantzukizun-egintza aipatutako

gizarte organoak ere abiaraz dezakeen, gutxienez, Batzar Nagusiaren erabaki sozialak inpugnatzeko ezarritako epe berean.

- d) Ezingo dute zuzendari-kudeatzaile karguan aritzerik izanen estatutu hauetako 33.5. artikuluan Kontseilu Errektorera aurreikusitako debeku edo bateraezintasunak dauzkatenek, ezta Kooperatibaren organo sozialen bateko kide direnek ere.

### **39. artikulua Kontu-hartzaileak. Eskumenak eta funtzionamendua. Legelari aholkularia**

**Bat.** Batzar orokorrak bere bazkideen artean eta isilpeko bozketa bidez izendatuko ditu hiru kontu-hartzaile titular, hiru urteko agintaldirako. Agintaldi bakoitzean berretsi beharko da izendapena, eta berriro ere hautatuak izan daitezke.

**Bi.** Kontu-hartzaile lanetan aritzea eta Kontseilu Errektoreko kide edo kooperatibako zuzendari izatea bateraezinak dira; ezin izanen da kontu-hartzaile izan, gainera, aipatu kide eta kargu horiekin bigarren maila bitarteko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duena.

**Hiru.** Kontu-hartzaileek idatzizko txosten xehatua bat aurkeztuko diote Batzar Nagusiari ekitaldi ekonomiko bakoitza ixten denean, txosten bakarra, baldin eta guztiak ados badaude, eta nork berea, adostasunik lortu ez bada. Txosten hori enpresaren kudeaketari buruzkoa izanen da, balantzearen azterketa eta emaitzen kontua barne, bai eta alor ekonomikoan Batzarrak ezagutu eta erabaki beharreko afera guztiak ere. Horretarako, Kontseilu Errektoreak beharrezko dokumentazioa eman beharko die kontu-hartzaileei Batzar Nagusia egin baino hogeita hamar egun lehenago gutxienez.

**Lau.** Kontu-hartzaileek, beren eginkizunetan, eskubidea dute informazioa jasotzeko eta Kooperatibaren jardunaren gaineko edozein dokumentu, datu edo zehaztapen inolako trabarik gabe kontsultatu eta egiaztatzeko.

**Bost.** Ezingo dute kontu-hartzaile izan estatutu hauetako 33.5. artikuluan Kontseilu Errektorera aurreikusitako debeku edo bateraezintasunak dauzkatenek, ezta Kooperatibaren organo sozialen bateko kide direnek ere.

**Sei.** Azken hiru ekitaldi ekonomikoetako kontuen arabera Kooperatibaren urteko eragiketabolumena hiru milioi eurotik gorakoa izan bada, legelari aholkulari bat izendatu beharko du, Kontseilu Errektoreak hartutako erabaki bidez.

Legelari aholkulariak irizpen bat eman eta sinatuko du, non adieraziko baitu ea Zuzenbidearen arabekoak diren ala ez Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak, Kooperatiben Erregistroan inskribatzekoak direnak.

Erabaki horien ziurtagirietan jasota geratuko da akta-liburuan azaltzen direla erabaki horiek, legelari aholkulariaren irizpenarekin.

Zabarkeria profesionalerik jokatuz gero, legelari aholkulariak erantzukizun zibila izanen du Kooperatibaren aurrean, haren bazkideen aurrean eta hirugarren pertsonen aurrean.



Legelari aholkularia ezin daiteke izan, bateraezinak baitira haien funtzioak, ez zuzendari-kudeatzaile, ez Kontseilu Errektoreko kide, ezta kontu-hartzaile ere.

Kooperatibaren eta legelari aholkulariaren arteko harremana zerbitzu-errentamendukoa (langile profesional gisa) edo lan-kontratupekoa izan daiteke.



## V. KAPITULUA

### KOOPERATIBAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

#### 40. artikulua Erantzukizuna

**Bat.** Bazkideek kooperatibaren eragiketa sozialetan duten ekonomia-erantzukizuna mugatua eta mankomunatua da, kapital sozialera egindako ekarpenen zenbatekora mugatuko da.

**Bi.** Ordaindu beharreko diru-ekarpenak zehaztu eta gero baja ematen duen bazkideak ez du inolako erantzukizunik izanen kooperatibak berak baja eman aurretik egindako zorrengatik.

#### 41. artikulua Kapital soziala

**Bat.** Honelakoak izan daitezke bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenak:

- a) Baja emanez gero itzultzeko eskubidea duten ekarpenak, Nafarroako kooperatibei buruzko 14/2006 Foru Legearen, 45-1 a) artikuluekin bat etorrita. Mota horretako ekarpenak iraupen mugatuko bazkideek egindakoak izanen dira, soil-soilik.
- b) Baja emanez gero, eta Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe ukatuz gero, itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpenak, Nafarroako kooperatibei buruzko 14/2006 Foru Legearen, 45-1 b) artikuluekin bat etorrita.

*Lehen motako ekarpenak (baja emanez gero itzultzeko eskubidea dutenak) nahitaez bigarren motako ekarpen bihurtzeak (Kooperatibak itzultzeko eskubidea baldintzarik gabe uka ditzakeenak), edo alderantzizko bideak, Batzar Nagusien erabakia eskatuko du ezinbestean. Ados ez dagoen bazkideak baja eman ahalko du, eta baja hori justifikatutzat joko da.*

Bazkideek kapital sozialari egiten dizkioten ondare-ekarpen nahitaezko zein borondatezkoek, osatuko dute Kooperatibaren kapital sozial.

**Bi.** Kooperatibaren gutxieneko kapital soziala 1.500 eurokoa (mila eta bostehun €) izanen da.

**Hiru.** Kapital sozialari egindako ekarpenak ziurtatzeko, izendun tituluak erabiliko dira, ehun euroko (100,00 €) baliodunak, baina ez dira diru-baliozko titulutzat hartuko; edo, bestela, izendun partaidetza-libretak erabiliko dira, non egindako ekarpen eta eguneratze guztiak eta bazkideari egotzitako galerengatik egindako kenketak azalduko baitira, hala badagokio.

**Lau.** Ekarpenak dirutan egingen dira, baina ondasunetan eta eskubideetan ere egin ahalko dira; horrelakoetan, Kontseilu Errektoreak zehaztuko du zenbat balio duten zer horiek, aurretik aditu independente batek horren gainean egindako txostena kontuan izanda.

**Bost.** Bazkide bakar batek ere ezin izanen du kapital sozialaren % 25 gainditzen duen ekarpenik eduki.

#### **42. artikulua Kapital sozialari nahitaez egin beharreko ekarpenak**

**Bat.** Hasierako nahitaezko ekarpena desberdina da bazkide motaren arabera taula honen arabera:

Bazkide erabiltzaileek Ehun euro (100 €).

Bazkide langileek Ehun euro (100 €)

Bazkide laguntzaileek (pertsone fisiko badira) Ehun euro (100 €).

Bazkide laguntzaileek (pertsone juridiko badira) Ehun euro (100 €).

**Bi.** Izena emateko orduan eman beharko da, eta osorik, bazkide izateko egin beharreko hasierako nahitaezko ekarpena.

**Hiru.** Batzar Nagusiak finkatuko ditu urtero bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpena, eta nahitaezko ekarpen gehiago egin beharra ere erabaki dezake, horien zenbatekoa, ordaintzeko epea eta baldintzak zehaztea ere. Kapitala nahitaez handitzearekin konforme ez dagoen bazkideak baja eman ahalko du, eta justifikatutzat joko da.

Aurrez egindako borondatezko ekarpenak erabili ahal izanen dituzte bazkideek, hala nahi izatera, nahitaezko ekarpen berriak ordaintzeko.

#### **43. artikulua Borondatezko ekarpenak**

**Bat.** Batzar Nagusiak bazkideek kapital sozialera egindako borondatezko ekarpenak onartzea erabaki dezake, gutxienez kontzeptu hauen baldintzak ekarpen horien baldintzak ezarrita:

- Interes-tasa
- Eguneraketa
- Itzulketa
- Eskualdagarritasuna

Baldintza horiek nahitaezko ekarpenenak baino onuragarriagoak izan daitezke.

**Bi.** Kontseilu Errektoreak bazkideen borondatezko ekarpenak onartu ahalko ditu, betiere ordainsari-mugak eta muga kuantitatiboak errespetatuz, Nafarroako kooperatibei buruzko 14/2006 Foru Legearen, 78-2 b) artikuluekin bat etorruta.

#### 44. artikulua Ekarpenen eguneraketa

**Bat.** Kooperatibaren balantzea Zuzenbide Erkideko sozietateentzat xedatutako baldintza eta onura berekin erregularizatuko da

**Bi.** Balantzea erregularizatzetik sortutako gainbalioa egoki iritzitako proportzioan, kapitala eguneratzeko edo erreserbak, nahitaezkoak zein borondatezkoak, handitzeko erabiliko du kooperatibak, ekitaldi bakarrean edo gehiagotan. Nolanahi ere, kooperatibak konpentsatu gabeko galerak baldin baditu, erregularizazioaren ondoriozko gainbalioa haiek konpentsatzeko erabiliko da, eta gainerakoa arestian aipaturiko helburuetarako.

Bazkideek sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenak gaurkotu ahalko dira Kooperatibak sortutako soberakinetan jatorria duten erreserben kargura, baldin eta arau hauek betetzen badira:

- a) Horretarako ez da inolaz ere erabiliko aipatutako erreserben % 50 baino gehiago.
- b) Ekarpinak gaurkutzeko, ondorio fiskaletarako indarrean den legezko eguneratze-koefizientea aplikatu zaie urte bakoitzeko ekarpenei.
- c) Eguneratzea soilik egin ahal izanen da baldin eta erreserben kopurua, horien % 50 aplikatuta, aipatutako erregela aplikatu ondoren ekarpenek izandako igoera osoa estaltzeko adinakoa baldin bada.

#### 45. artikulua Ekarpenen interesa

**Bat.** Batzar Nagusiak finkatuko du bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenek sortzen ahal duten interesa. Interes horrek ezin izanen du diruaren interes legala gainditu.

**Bi.** Kapital sozialera egindako ekarpenek ez dute interesik sortuko galerak izan diren ekitaldietan, Kontseilu Errektoreak hala erabakita, Batzar Nagusiaren hurrengo bilera egin arte.

#### 46. artikulua Ekarpenak eskualdatzea

**Bat.** Ekarpinak eskualda daitezke bizien arteko ekintzez (*inter vivos*) eta heriotzaren ondoriozko oinordetzaz (*mortis causa*).

**Bi.** *Inter vivos* egintzen bitartez, bazkideen artean bakarrik egin daiteke, arau hauei jarraiki:

- 1) Kontseilu Errektoreak baimena eman dezake jardunean dauden bazkideen ahaideak –odol bidezko hirugarren maila bitartekoak– bazkide izan daitezen, hala eskatzen badute, ez sarrera-kuotarik, ezta kapital sozialari egin beharreko ekarpenik ere eskatu gabe.

Hamabost eguneko epean formalizatu behar da ekarpen sozialaren eskualdaketa osoa, bazkidearen –zeinak baja eman behar baitu– eta bazkide izan nahi duen

ahaidearen artean. Bestela, Kontseilu Errektoreak bazkide izateko prozedura orokorrari ekin beharko dio, sarrera-kuoten eta sozietatearen kapitalari egin beharreko ekarpenen araubideari dagokionez.

- 2) Bazkideen eta ahaideen arteko eskualdaketa partziala bakar-bakarrik egin daiteke lehen mailako odol- edo ezkontza-ahaidetasuna dutenen artean, eta kasu horretan biak izan daitezke bazkide eskualdaketa egin ondoren, betiere Foru Legearen 45. artikuluan bazkideek kapital sozialean duten partaidetzarako ezarritako gutxieneakoak errespetatzen badituzte.

**Hiru.** *Mortis causa* oinordetzetan, bakarrik egin dakieke kausadunei, baldin eta bazkideak badira, edo bazkide bihurtzen badira gehienez ere heriotzatik 6 hilabeteko epean.

Kausadunak bazkide ez badira, Kooperatibak baimena eman dezake haietako bat bazkide gisa aritu dadin gainerako jaraunsleen orde, jaraunsleek aurretiaz horretarako baimena emanaz gero.

#### 47. artikulua Ekarpinak itzultzea

**Bat.** Bazkide izateari uzten zaionean, bazkide ohiak edo bere kausadun akreditatuek ahalmena dute hark egindako ekarpinak itzultzea eskatzeko, baja emateko egunean luketen balioarekin. Ekarpinen balioa zehazteko, baja gertatzen den ekitaldi-itxierako balantzea hartuko da oinarri.

**Bi.** Baja justifikatua denean (14. eta 15. artikuluetan xedatutakoaren bidetik) edo heriotzagatik, ez zaie kenketarik batere aplikatuko ekarpenei.

Gainerako kasuetan, Kontseilu Errektoreak kenkariak aplikatzea erabakiko dezake:

- gehienez ere % 30era artekoa, bajaren arrazoia kanporaketa bada.
- gehienez ere % 20ra artekoa, bajaren arrazoia justifikatu gabea bada, norberaren borondatez nahiz behartuta.

Kenkari horiek bazkidearen nahitaezko ekarpenen likidazioaren zenbatekoari ezartzen ahal zaizkio; borondatezko ekarpenei ez zaie kenkaririk ezartzen ahal.

**Hiru.** Ekarpinak itzultzeko epea gehienez ere bost urtekoa izanen da (baja eman zen egunetik kontaktzen hasita), edo urtebetekoa (bazkidea hilez gero, heriotza eragin zuena gertatu zenetik kontaktzen hasita). Kontseilu Errektoreak finkatuko du ekarpinak itzultzeko epea, Kooperatibaren finantza-egoera eta bajaren inguruabarrak kontuan hartuta.

**Lau.** Itzultzeke dauden kopuruek diruaren legezko interes bera jasoko dute, baina ez dute eguneratzeko eskubiderik izanen.

**Bost.** Kontseilu Errektoreak zehaztu egin beharko du bazkide ohiari ekarpenengatik egin beharreko itzulketaren zenbatekoa, bi hilabeteko epean gehienez ere, Kooperatiban baja eman zuen ekitaldiko urteko kontuak onesteko egunetik kontaktzen hasita.

**Sei.** Bazkide berriak sartuz gero, Kooperatibei buruzko Foru Legearen 45.1.b) artikuluan ezarritako ekarpen-eskuratze bidea lehenetsiko da bazkide berri horiek kapital sozialera ekarpenak egiteko bide gisa, baldin eta haien titularrek baja eman ondoren itzulketa eskatu badute. Eskuratze hori ekarpen mota horien itzulketa eskarien antzinasunaren hurrenkeran eginen da, eta egun berean aurkezturiko eskarien kasuan, eskuratzea ekarpenen zenbatekoaren proportzioan banatuko da.

**Zazpi.** Bazkide ohiari bere ekarpenak oso-osorik itzultzen ez zaizkion bitartean, Kooperatibak, Kontseilu Errektorearen bitartez, Batzar Nagusi Ohikoak urteko kontuak onesteko hartutako erabakiaren ziurtagiria igorriko dio, bai eta Kooperatibaren urteko kontuen kopia ere, zein Nafarroako Kooperatiben Erregistroan gordailutuko diren. Gehienez ere hogeita hamabost eguneko epean eginen da hori guztia, Batzar Nagusi Ohikoaren akta onetsi zen egunetik kontatzen hasita.

#### **48. artikulua Partaidetza bereziak**

**Bat.** Partaidetza berezizat hartuko dira Nafarroako kooperatibei buruzko 14/2006 Foru Legearen 45. 10 artikulua araberako mendeko finantzaketak, zeinetan itzulketa ez den gauzatuko partaidetza jaulki eta gutxienez bost urte igaro arte, eta ordainsaria Kooperatibaren emaitzen araberakoa izanen den.

**Bi.** Batzar Nagusiaren eskumena da partaidetza bereziak onestea, horretarako erabakian honako hauek zehaztuko dituelarik:

- a) kontratazioaren edo jaulkipenaren zenbatekoa eta baldintzak, zeinek inolaz ere ez baitute eskubiderik emango, ez Batzar Nagusian botoa eman ahal izateko, ezta Kontseilu Errektorean parte hartzeko ere; eta
- b) hirugarrenei eskaini aurretik bazkideei eta soldatapeko langileei eskainiko zaien kopurua, gutxienez guztizkoaren % 50ekoa.

#### **49. artikulua Aldizkako kuotak eta apartekoak**

**Bat.** Batzar Nagusiak aldizkako kuotak ezarri ahalko ditu, zein bazkideek Batzarraren erabakian adierazitako maiztasun, zenbateko eta moduan ordaindu beharko dituzten. Kuota horiek ez dira kapital sozialean sartuko, eta ez dira bazkideei itzulgarriak izanen.

**Bi.** Era berean, Batzar Nagusiak kuota gehigarriak onar ditzake noiz edo noiz, hala eskatuko luketen inbertsio jakin batzuei aurre egin ahal izateko.

Aldizkako kuotak eta apartekoak bazkide mota guztiei eska dakizkieke, edo soilik estatutu hauetan aurreikusitako bazkide mota batzuei.

## 50. artikulua Beste finantzaketa batzuk

Nafarroako kooperatibei buruzko 14/2006 Foru Legearen 45. artikulua 10., 11., 12. eta 13. apartatuetan xedatutako modalitateetako edozeinera jo ahal izanen du Kooperatibak, aurretiaz erabaki hori hartuz gero.

## 51. artikulua Soberakin garbiak

**Bat.** Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza-sozietateentzat ezarritako arau eta irizpideak hartuko dira kontuan, hurrengo apartatuan xedatutakoarekin bat.

**Bi.** Partida kengarritzat joko dira honako hauek:

- Kooperatibaren kudeaketarako entregatutako ondasunen zenbatekoa, zeina ez baita balioetsiko merkatu-preziotik gora;
- kapital sozialari egindako ekarpenengatik, partaidetza bereziengatik eta gizarte kapitalean sartu gabeko beste finantzaketa batzuek sortutako interesak;
- legez baimendutako amortizazioak;
- lansari-aurrerakinak;
- Kooperatibaren funtzionamendurako behar diren gastuak; eta
- ondorio berberetarako indarreko legeak aitortzen duen beste edozein kenkari.

**Hiru.** Honako etekin hauek Kooperatibaz kanpoko etekin gisa jasoko dira kontabilitatean: hirugarrenekin eginiko eragiketen ondoriozkoak, gainbalioetatik sortutakoak eta kooperatibaren helburukoak ez diren iturrietatik heldu direnak, salbuespen hauek eginda:

- a) Sozietate kooperatiboetan egindako inbertsioetatik edo partaidetza finantzarioetatik heldu diren diru-sarreren ondoriozkoak, edo, sozietate kooperatiboak ez badira ere, Kooperatibaren beraren lanerako prestaketa lanak, lan osagarriak edo menpekoak egiten badituzte, horrelakoak ondorio guztietarako kooperatibaren emaitzat hartzen baitira.
- b) Sozietatearen helburua betetzeko diren ibilgetu materialaren elementuak besterentzetik lortutako gainbalioak, baldintza hauek betez gero:
  - Diru guztia ibilgetuaren elementu gehiagotan inbertitzea, helburu bererako.
  - Berrinbertsio hori egitea ondare-elementua eman edo eskura jartzen den eguna baino urte bat lehenagotik hasi, eta egun horren ondotik hiru urte bete baino lehen.
  - Haren ondarean egotea amortizazio-epea bukatu arte, justifikatutako galerak izan ezik.

Kooperatibaz kanpoko emaitzak kalkulatzeko, eragiketa horietatik etorritako diru-sarrerei, sarrera horiek lortzeko behar izan diren gastu berariazkoek gainera, Kooperatibaren gastu orokorreari dagokien zati bat ere egotziko zaie, egozpena egiteko taxuzko irizpideetan oinarrituz kalkulatu.

## 52. artikulua Soberakin erabilgarrien banaketa

**Bat.** Soberakin garbiei aurreko ekitaldietako galerak orekatzera bideratutako kopuruak eta dagozkien zergak kendu ondoren geratzen diren kopuruak dira soberakin erabilgarriak.

**Bi.** Batzar Nagusiak arau hauen arabera banatuko ditu soberakin eskuragarriak:

- a) % 30, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratuko da, harik eta funts hori kapital sozialaren % 50eko edo hortik gorako zenbatekora iristen den arte. Zenbateko horretara iritsitakoan, soberakin horien artetik gutxienez % 5 Hezkuntza eta Sustapen Funtsera bideratuko da, eta gainerako % 25 Nahitaezko Erreserba Funtsera.
  - i) Adierazitako Erreserba Funtsa kapital sozialaren % 200eko edo hortik gorako zenbatekora iristen denean, soberakin garbien % 20 hura elikatzen bideratuko da, eta % 5 Hezkuntza eta Sustapen Funtsera.
  - ii) Nahitaezko Erreserba Funtsa kapital sozialaren % 300eko edo hortik gorako zenbatekora iristen denean, nahikoa izanen da soberakin garbien % 10 hura elikatzen bideratzea, eta beste % 10 Hezkuntza eta Sustapen Funtsera.
- b) Kooperatibaz kanpoko etekinen % 50 Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratuko da, eta gainerako % 50 borondatezko erreserbetara. Nahitaezko Erreserba Funtsa kapital sozialaren % 300eko edo hortik gorako zenbatekora iristen denean, kooperatibaz kanpoko etekinen % 25 funts hartara bideratuko da, eta gainerako % 75 borondatezko erreserbak elikatzen.

Borondatezko Erreserba Funtsa, halakorik egotera, ondoko diru-zenbateko hauekin hornituko da:

- a) Kooperatibaz kanpoko etekinen % 50.
- b) Kooperatiben etekinetatik ehuneko bat, Batzar Nagusiak erabakitzen duena.
- c) Baja kasuetan egin beharreko nahitaezko ekarpenen kenkariak, ezarritako zehapen ekonomikoak eta bazkidearen sarrera kuotak, batzar orokorrak horrela erabakitzen duenean, Kooperatibei buruzko Legearen 51. artikuluko 2. apartatuko azkeneko paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.



### **53. artikulua Nahitaezko funtsak**

**Bat.** Kooperatiba finkatu, garatu eta bermatzeko da Nahitaezko Erreserba Funtsa, eta ezin da bazkideen artean banatu.

Aurreko artikuluko diru-kopuruez gain, funts honetan sartu behar dira bazkideen baka-kasuetan egin beharreko ekarpenen kenkariak.

**Bi.** Hezkuntza eta sustapen funtsa banaezina eta bahiezina da eta honelaxe eratua dago:

- a) Ekitaldi bakoitzeko soberakin garbiei buruz Batzarrak ezartzen den ehunekoa, baina inoiz ez % 5etik beherakoa, Nahitaezko Erreserba Funtsa kapital sozialaren % 50 adinakoa edo handiagoa denean.
- b) Helburu horietarako jasotako dirulaguntza, dohaintza eta laguntzak.

Batzar Nagusiak finkatuko ditu Hezkuntza eta Sustapen Funtsa –zein jarraian adierazitako helburuetako batzuk dituzten jardueretan erabiliko baita– aplikatzeko oinarriko jarraibideak:

- 1) Laguntza teknikoa sustatzea, kooperatibei laguntzeko goi-egiturak sortzea eta, oro har, elkarri laguntzeko printzipioan sar daitezkeen jarduerak.
- 2) Kooperatiben oinarri eta tekniketan bertako bazkide langileak eta besteren konturako langileak prestatzea eta heztea, bai eta kooperatibismoaren ezaugarriak aditzera ematea Kooperatibaren jarduerak ukitutako gizaritari.
- 3) Izaera kulturala, profesionala edo ongintzakoa duten jarduerak, inguruko gizartearen edo, oro har, komunitatearen sustapen sozialaren alde.  
Hezkuntza eta Sustapen Funtsa zein helburuekin sortu zen eta horretarako erabili behar da oso-osorik. Funtse hori bere helburuetara bideratuko da, bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibei, kooperatiben elkarteei edo irabazi asmorik gabeko ekonomia sozialeko entitateei diru hori emanez –betiere funtsa sortu zen helbururako erabiltzeko baldintzapean–, edo bestela, Kooperatibak berak zuzenean bideratuko du.

### **54. artikulua Borondatezko funtsak**

Batzar Nagusiak onartu eta gero, kooperatibak komeni bezainbeste Borondatezko Erreserbaren Funtse –banagarri zein banaezin– eratu ahalko ditu.

### **55. artikulua Galerak egozteak**

**Bat.** Batzar Nagusiak galeren egozpena egingen du, arau hauek kontuan hartuta:



- a) Balantzearen erregularizazio-funtsari, 44 - Bi artikuluan adierazitakoaren arabera, ahal den zenbatekoa.
- b) Borondatezko Erreserba funtsei, halakorik balego, haien zenbateko osoa.
- c) Nahitaezko Erreserba Funtsari egotz dakioke, gehienez ere, soberakin positiboko azken bost urteetan nahitaezko funtsetara bideratutakoaren batez besteko ehunekoak.
- d) a), b) eta c) puntuen arabera orekatu ez den zenbatekoa bazkideei egotziko zaie.

**Bi.** Aurreko paragrafoan adierazitakoa hala izanik ere, Batzar Nagusiak erabaki dezake ekitaldi jakin batean izandako galera guztiak edo haien zati bat esleitu gabeko kontu berezi bati egozte, etorkizunean izan daitezkeen emaitza positiboekin eta balantzeen erregularizazioekin amortizatzeko, gehienez ere bost urteko epean.

Bost urteak pasa ondoren, artean konpentsatu gabeko kopururik geratuko balitz, konpentsatu arteko aldea bazkide guztien artean banatuko litzateke, azken urtean Kooperatiban izan duten jardueraren arabera legokiekeen proportzioan.

Denbora tarte horretan baja eman duten bazkideei galeren funtsetik konpentsatzeko dagoen kopuruaren zati proportzionala egotziko zaie.

## **56. artikulua Kontu-auditoria**

**Bat.** Kooperatibak kanpoko auditoria egin beharko die urteko kontuei eta kudeaketa-txostenari, Kontu Ikuskatzeari buruzko Legeak xedatutako egoeran badaude, edo Kooperatibako bazkideen % 15ek idatziz hala eskatzen badio Kontseilu Errektoreari.

**Bi.** Batzar Nagusiak izendatuko ditu auditoreak, eta Batzarrik ezean, Kontseilu Errektoreak; hala izatera, izendapenaren berri eman beharko du Batzar Nagusiak egiten duen lehen hurrengo bileran.



## VI. KAPITULUA

### KOOPERATIBAREN DOKUMENTAZIOA ETA KONTABILITATEA

#### 57. artikulua Kooperatibaren dokumentazioa

**Bat.** Kooperatibak eguneratuta izanen ditu honako liburu hauek:

- a) Bazkideen erregistroa.
- b) Kapital sozialari eginiko ekarpenen erregistroa.
- c) Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektoreren akta-liburuak.
- d) Inbentario- eta balantze-liburuak.
- e) Egunkaria.
- f) Urteko kontuen liburua.
- g) Kontu-hartzaileen txosten-liburuak.
- h) Beste lege-xedapen batzuk eskatzen dituztenak.

Liburuak erabiltzen hasi aurretik, Kooperatiben Erregistroak eginbidetu beharko ditu eta, behar izatera, baita legezatu ere.

**Bi.** Prozedura informatikoak edo egokiak diren beste batzuk baliatuko dira idatzohar eta idazpenak egiteko. Gero zenbakitu, hurrenez hurren koadernatu eta legezatu egin beharko dira Kooperatiben Erregistroan, ekitaldi ekonomikoa itxi eta bi hilabeteko epean gehienez ere.

Hori eragotzi gabe, aurreko apartatuan aipatutako organoetako aktak –zein prozedura informatiko edo antzekoen bidez osatuko baitira– Kooperatiben Erregistrora igortzen ahal dira, ziurtagiri bidez, eta bi hilabeteko epean onesten direnetik, legezatu ditzaten.

#### 58. artikulua Kontabilitatea

**Bat.** Kooperatibak bere jarduerari egokitutako kontabilitatea egingen du, betiere merkataritza-kodearen eta aplikatzeak diren gainerako lege-xedapenen arabera, eta kooperatiben araubide ekonomikoaren berezitasunak errespetatuz.

Kooperatibaren ekitaldi ekonomikoa urtarrilaren 1ean hasiko da eta abenduaren 31n amaituko.

**Bi.** Ekitaldia amaitzerakoan eratu beharreko Kooperatibaren urteko kontuetan indarreko legediak eskatzen dituen agiriak bilduko dituzte, bai eta kudeaketa-txostena ere, baldin eta urteko kontuen auditoria egin behar badu.

### **59. artikulua Urteko kontuen gordailua**

Kontseilu Errektoreak urteko kontuak aurkeztuko ditu, gero Kooperatiben Erregistroan gordailutzeko, Batzar Nagusiak onartu eta bi hilaren barruan, eta, hala badagokio, baita kudeaketa-txostena eta kontu-ikuskatzaileena ere, Kontseilu Errektoreko kide guztiek sinatuta. Kontseiluko kideren batek sinatzerik ez badu, horren zergatia azaldu beharko da berariaz.



## VII. KAPITULUA

### KOOPERATIBA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

#### 60. artikulua Desegiteko arrazoiak eta erabakia

**Bat.** Honako hauek dira Kooperatiba desegiteko arrazoiak:

- a) Bazkide-kopurua Legeak kooperatiba bat eratzeko eskatzen duen gutxienekotik behera egitea, eta sei hilabetetik gora irautea egoera horretan.
- b) Elkartearen kapitala murriztea, Legean edo estatutu hauetan ezarritako gutxieneko kopurutik behera, ez bada gutxieneko diru-kopuru hori sei hilabeteko epean gainditzen.
- c) Beste batekin erabat bateratzea edo erabat zatitzea.
- d) Estatutuetan finkatutako epemuga betetzea, non eta Batzar Nagusiak ez duen jarduera luzatzea erabakitzen.
- e) Kooperatibaren porrota gertatzea.
- f) Berariaz horretarako deitutako Batzar Nagusiaren erabakia.

**Bi.** Desegiteko erabakia gehiengo arruntez hartuko da, d) eta f) kasuetan izan ezik, zeinetan bi herenen gehiengoa beharko baita.

**Hiru.** Arestiko artikuluan aipatutako desegite-arrazoiaren bat gertatuz gero, Batzar Nagusiaren bilera deitu beharko du Kontseilu Errektoreak, eta ezin izanen dira igaro ez hogeita hamar egun naturak baino gehiago, ez eta hamar baino gutxiago ere.

**Lau.** Desegiteko erabakia edo epaia Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da, bai eta, gero, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean zabalkunde handieneko gutxienez bi egunkaritan argitaratu ere.

#### 61. artikulua Likidazioa

Kooperatibaren likidazioa Nafarroako kooperatibei buruzko 14/2006 Foru Legearen 63. artikuluan xedatutakoaren eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarrien arabera eginen da.

## AZKEN XEDAPENAK

### **LEHENA.      ARBITRAJE KOOPERATIBOA**

Nafarroako Kontsumoko Batzorde Ebazlearen zuzenbideko arbitrajeren mende jartzen ahal dira harreman kooperatibizatuen testuinguruan –baita likidazio-aldian ere– Kooperatibaren eta hura osatzen duten bazkideen artean sor daitezkeen auzigaiak, bai eta bazkideen artekoak ere, baldin eta adiskide-bideak oro agortu badira. Aldeek berariaz onartu beharko dute arbitraje horren ondoriozko laudoa.

